

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 39/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1ekoa, arautzen dituena autonomiaren aldeko eta mendekotasunari arreta eskaintzeko sistemako prestazio ekonomikoak Araban: mendekoak familia barruan zaintzeko eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalaren prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa

Arabako Foru Aldundiak du eskumena gizarte zerbitzuen esparru osoko erakundeen legedia betearazteko, 27/1983 Legearen 7.c) artikulua ezarritako eskudantziari jarraiki (27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Eusko Legebiltzarrarena, Euskal Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremani buruzkoa), eta hori guztia, Espainiako Konstituzioaren 148.1.20 artikulua aplikatuz, Autonomia Estatutuko 10.12 artikulua bidez Euskal Autonomia Erkidegoak gizarte laguntzaren arloan bere gain hartutako eskumen esklusiboen esparruan.

Eskudantzia hori gizarte zerbitzuen esparrua arautu duten autonomia erkidegoko hurrenez hurreneko lege sektorialetan jaso da- Hala, gaur egun, 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, bere 41.3 artikuluan foru aldundiei esleitzen die Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuei hornitzeko eskumena, Eusko Jaurlaritzari bere ekintza zuzeneko eskumenaren esparruan esleitutakoak izan ezik.

Bere eskumenari dagozkion gizarte zerbitzuekin lotutako jarduerak antolatzeko, kudeatzeko, emateko eta gauzatzeko funtzioak betetzen ditu Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea ekainaren 20ko 21/1988 Foru Arauaren bidez eratu zen, garai hartako Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailari atxikitako erakunde autonomo gisa, eta apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuak arautzen ditu haren antolaketa eta egitura- Horiek horrela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen foru sarearen kudeatzailea da eta, beraz, berak dauka Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak xedatutakoak aplikatzeko eskumena.

Esparru horretan, goian aipatutako abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 16- artikuluan aurreikusitako oinarri hartuta, Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen du Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako Zerbitzuen Katalogoan ezarritako zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak Arabako Lurralde Historikoan ematea gizarte zerbitzuen foru sarearen bidez, bere eskumenari egokitzen zaionean- Horretarako, aintzat hartuko dira 12/2008 Legean jasotako eskumen banaketa (12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa), eta 39/2006 Legearen hamabigarren xedapen gehigarriaren babesean beteko du zeregin hori; xedapen gehigarri horretan, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, foru aldundien ezaugarri bereziak berriaz onartzen dira, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren parte hartzen duten lurralde erakundeak diren aldetik.

Abenduaren 14ko 39/2006 Legeak honako prestazio ekonomiko hauek sartu zituen Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren: familia ingurune zainketarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa- Ildo horretatik oinarritzko zenbait aurreikuspen ezarri zituen, eta haietako batzuk sakonago arautu ziren arau bidezko

garapenean, baina hura ez zen nahikoa Arabako Lurralde Historikoan prestazio ekonomikoak gauzatzeko, eta beharrezkotzat jotzen zen Estatuko legea erregelamendu bidez garatzea, haren araubide juridiko eta ekonomikoari zegokionez- Araban, premia horri erantzunez, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomiko bakoitza arautzeko foru dekretu bat onartu zen- Dekretu horiek indarrean jarri ondoren, prestazioen gehieneko zenbatekoen hurrenez hurreneko eguneratzeak egin ziren, eta, halaber, prestazioak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei bermatutako oinarrizko babes mailaren gaintik, Arabako Foru Aldundiak Arabako lurraldean sustraituta egotearen inguruko zenbait baldintza betetzen dituztenei eskaintzen dien babes maila gehigarria definitu zen- Aldaketa horietatik harago, familia inguruneke zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoaren kasuan, beharrezkoa izan zen 2010ean arau berria egitea, bere testuan batu zituen bai Estatuko araudiaren bilakaeraren ondoriozko aldaketak bai Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak aurreko hiru urteetan zehar prestazio ekonomiko horren kudeaketan bildutako esperientziaren ondoriozko hobekuntzak.

Gaur egun, Arabako Foru Aldundiak uste du indarra duen foru araudia aldatu beharra dagoela, hiru helburu lortze aldera:

– Araudi hori egokitzea, kontuan izanik mendekotasun egoerei arreta emateko Estatuko araudian egindako aldaketak, autonomia erkidegoko arau esparruan sartutako aurreikuspen berriak, batez ere Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ekarritakoak, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoei eragiten dieten neurrian, eta, halaber, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren aurreikuspenak, prestazio ekonomiko horietan eragina izan lezaketenak; Nazio Batuen Batzar Nagusiak konbentzio hori aldarrikatu eta onartu zuen 2006ko abenduaren 13an eta Espainiak berretsi egin zuen 2008an.

– Uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren aurreikuspenetara egokitzea- Foru dekretu horrek mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura arautzen du, baita, horrelako kasuetan, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.

– Indarra duten arauak aplikatu diren urteetan metaturiko esperientziaren argitan beharrezkotzat jotzen diren aldaketak eta hobekuntzak araudi berrian sartzea.

– Foru araudiaren egungo barreiadura gainditzea, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoei dagokionez, testu bakarrean batuz prestazio horiei aplikatu beharreko xedapen berariazkoak, zenbatekoak finkatzeko arauak salbu.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak eskumena eman dio Diputatuen Kontseiluari foru arauak, autonomia erkidegoetako legeak eta Estatuarenak garatzeko manuak emateko.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak hala proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseilua jakinaren gainean dagoela, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

XEDATZEN DUT:

I-TITULUA- XEDAPEN OROKORRAK

1- artikulua- Xedea eta aplikazio eremua

1- Foru dekretu honen xedea da Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomiko hauei aplikatu beharreko araubide juridiko eta ekonomikoa arautzea:

a) Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa.

b) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa.

c) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa –Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eman beharreko zerbitzuei lotuta dagoenean–, bi modalitatetan:

– Atsedenerako modalitatea, atsedenerako zerbitzuei lotuta dagoenean eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan –okupazionala izan ezik–, adinekoentzako gaueko zerbitzuan edo zentroan, adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan eta egoitza zerbitzuan edo zentroan –denak ere gizarte zerbitzuen foru saretik kanpokoak–, urtean gehienez 45 egunez edo gauez –zerbitzuaren izaeraren arabera–, uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 45.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz- Foru dekretu horrek mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura arautzen du, baita, horrelako kasuetan, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.

– Modalitate arrunta, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 45.1 artikuluan maila bakoitzerako ezarritako zerbitzu eta zentroi –gizarte zerbitzuen foru saretik kanpokoak– lotuta dagoenean, urtean 45 eguneko edo gaueko –zerbitzuaren izaeraren arabera– gehieneko muga, atsedenerako zerbitzuetarako ezarritakoa eta aurreko lerroaldean aipatutakoa, gainditzen duten aldiatarako- Aldi baterakoa edo iraunkorra izan daiteke.

2- Lehen idatz zatian aipatutako prestazio ekonomikoak Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemakoak dira, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritakoa dela bide, eta Arabako Lurralde Historikoan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak kudeatzen ditu, lege beraren 16- artikuluan ezarritakoa dela bide, hamabigarren xedapen gehigarriarekin loturik- Halaber, prestazio ekonomiko horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemakoak dira, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarrita dagoenez; izan ere, lege horren 22- artikulua sistema horretako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartzen ditu.

3- Prestazio ekonomiko horiek jasotzeko betekizunak eta emateko eta aplikatzeko prozedurak aurreko idatz zatian aipatutako legeetan eta haiek garatzen dituzten xedapenetan ezarritakoaren bidez arautuko dira, eta Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren bidez, bai eta foru dekretu honetan dauden berariazko xedapenen bidez ere, aurrekoaren osagarriak baitira.

4- Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoei aplikatu beharrekoak izango dira, halaber, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte

zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 47- artikuluan araututako bateragarritasun irizpide orokorrak- Horien arabera, prestazio ekonomikoak bateragarriak izan ahalko dira honako muga hauekin:

a) I- mendekotasun gradua aitortu zaien pertsonak gehienez foru eskumeneko bi zerbitzu eta/edo prestazio ekonomiko jaso ahal izango dituzte batera, modalitate arruntean.

b) II- edo III- mendekotasun gradua aitortu zaien pertsonak gehienez foru eskumeneko hiru zerbitzu eta/edo prestazio ekonomiko jaso ahal izango dituzte batera, modalitate arruntean.

Paragrafo honetako a) eta b) letretan ezarritako gehieneko mugak honako hauen kalterik gabe ulertu beharko dira:

- aipatutako foru dekretuaren 44.1.b) artikuluan aurreikusitako salbuespeneko egoerak;
- atsedenerako zerbitzuak ere bateragarriak izateko aukera, atsedenerako zerbitzu motaren arabera bateragarritasun horretarako ezarritako baldintzetan;
- telelaguntza zerbitzua ere bateragarria izateko aukera, bateragarritasun horretarako ezarritako baldintzetan.

5- Arabako Lurralde Historikoaren eremu geografikoan aplikatu ahal izango da foru dekretu hau.

2- artikulua- Definizioak

Foru dekretu honen xede diren prestazio ekonomikoak honela definitzen dira:

a) Familia inguruneke zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoaren helburua da mendekotasuna aitortuta duen pertsona bat zaintzaile ez profesional batek zaintzearen ondoriozko gastuei aurre egiten laguntzea.

b) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren helburua da laguntzaile pertsonal bat edo batzuk kontratatzeak dakartzen gastuak ordaintzen laguntzea- Laguntzaile horiek ikasketak egiten edo laneratzen lagunduko diete mendekotasuna duten pertsonari, eta/edo eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko autonomia handiagoa ahalbidetuko diete.

c) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eman beharreko zerbitzuei lotuta dagoenean, honako definizio hauek ditu, modalitatez modalitate:

– Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, modalitate arruntean, gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko zerbitzu eta zentroak atsedenerako zerbitzuei ezarritako mugaren gainetik –urtean 45 egun edo gau, zerbitzuaren izaeraren arabera– erabili ahal izateko prestazioa da- Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 45.1 artikuluan mendekotasun gradu bakoitzerako ezarritako zerbitzuen eta zentroyen kostua finantzatzen laguntzeko ematen da, baldin eta sarrerarako ebazpena ematen den unean eskatzailek badago itxaroten, prestazio ekonomikoari lotuta dagoen zerbitzuaren izaerari dagokion Plazak Kudeatzeko Programako Plaza Hutsak Esleitzeko Zerrendan- Programa hori aipatutako foru dekretuaren 79- artikuluan araututa dago.

Modalitate honetan, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa etenik gabe jaso beharko da.

– Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ematen da, atsedenerako modalitatean, atsedenerako zerbitzuak erabili ahal izateko eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan (okupazionala izan ezik), adinekoentzako gaueko zerbitzuan edo zentroan, adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan, edo egoitza zerbitzuan edo zentroan –denak ere gizarte zerbitzuen foru saretik kanpokoak– Prestazio ekonomiko honen bidez zerbitzu horien kostua finantzatzen

laguntzen da eta laguntza ematen zaie mendekotasuna aitortuta duen pertsonaren baten ohiko zaintzaileak izanik atsedean hartzeko, etxebizitza zaharbertzeko, ospitaleratzeko edo antzeko egoerarako egun batzuk hartu behar dituzten pertsonen- Horri dagokionez, aplikagarria izango da 45 eguneko edo gaueko –atsedenerako zerbitzuaren izaeraren arabera– gehieneko epea, atsedenerako zerbitzuetarako ezarrita dagoena Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 45.4 artikuluan.

Atsedenaldirik horiek etenik gabe edo etenka hartu ahal izango dira.

Aurrekoaren ondoretarako, gizarte zerbitzuen foru saretik kanpokotzat hartuko dira sare horretan sartuta ez dauden zerbitzuak eta zentroak, eta ulertuko da sare horretan sartuta daudela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuak, bai berak zuzenean kudeatzen dituenak bai erakunde pribatuekiko hitzarmen, itun edo kontratuen bidez kudeatzen direnak, 36/2014 Foru Dekretuaren 1.2 artikuluan ezarritakoarekin bat.

3- artikulua- Izaera eta ezaugarriak

1- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 4.1 artikuluan ezarritakoa dela bide, foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoak eskubide dira mendekotasuna aitortuta duten eta prestazio bakoitza eskuratzeko berariaz araututa dauden baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat, baldin eta, banakako arreta programaren ildotik, prestazio ekonomikoa –edo, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, lotutako zerbitzua– aukerarik egokiena bada, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 51- artikuluan ezarritakoaren arabera.

2- Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoek ezaugarri hauek dituzte:

a) Mendekotasun graduaren arabera aitortzen dira.

b) Xededunak dira, alegia, aurreko artikuluan prestazio ekonomiko bakoitzerako ezarritako xedeei lotutako gastuak ordaintzeko erabili behar dira.

c) Aldian behingoak dira.

d) Transferiezinak dira, eta, beraz, ezin dira:

– Betebeharren berme gisa eskaini.

– Osorik edo zati batean laga.

– Konpentsatu edo deskontatu, ez bada prestazio hauetariko edozeinetan bidegabeki jasotako diru kopuruak itzultzeko edo onuradunak Gizarte Ongizaterako Foru Institutuari beste edozein zor ordaintzeko.

– Atxiki edo enbargatu, salbu eta Estatuko legeria orokor aplikagarrian ezarritako kasuetan eta mugekin.

e) Subsidiarioak dira Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sisteman sartutako zerbitzuei dagokienez, horrela aurreikusita baitago Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 14.2 artikuluan.

Subsidiariotasun horren ondorioz, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, ezin dira lehentasunezko baliabide izendatu banakako arreta programaren barruan, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek

jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 51.3 artikuluekin bat etorriz, honako kasu hauetan izan ezik:

– Mendekotasun egoera behin-behinean aitortzen zaienean 75 urtetik beherako pertsoneri, uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretuaren 45.5 artikuluan aurreikusi bezala- Horrelakoetan, zerbitzurik egokiena adinekoentzako ostatu zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) denean, edo desgaitasuna nahiz buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza, edo egoitza zerbitzu edo zentroa, orduan zerbitzuari lotutako prestazioa izango da lehentasunezko baliabidea, aipatutako artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

– Atsedenerako zerbitzua ematen denean adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) edo adinekoentzako egoitza zerbitzu edo zentroan- Horrelakoetan, 36/2014 Foru Dekretuaren 45.4 artikuluko azken tartekian ezarritakoarekin bat, beti emango da zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, salbu eta inguruabarrengatik egokiagoa bada gizarte zerbitzuen foru sareko zerbitzuren bat erabiltzea eta horrela baloratzen eta justifikatzen bada txosten tekniko baten bidez.

f) Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa salbuespenezkoa da, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 14.4 eta 18.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera- Salbuespenezkoa denez, prestazio hori banakako arreta programa prestatzen duen erreferentziako profesionalaren ekimenez baino ezingo da esleitu, horrela xedatzen baitu Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 63.1 artikulua.

4- artikulua- Prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea

1- Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 45- artikuluan ezarritakoaren arabera, I., II- edo III- graduako mendekotasuna aitortuta daukaten pertsonen honako prestazio hauek jaso ahal izango dituzte:

a) Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa.

b) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa.

c) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, modalitate arruntean- Aipatutako 45- artikuluan mendekotasun gradu bakoitzerako aurreikusita dauden eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eman behar dituen zerbitzu eta zentroei lotu behar zaie, betiere foru saretik kanpoko zerbitzu eta zentroei.

d) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, atsedenerako modalitatean- Aipatutako 45- artikuluan 4- paragrafoan aurreikusita dauden eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eman behar dituen atseden zerbitzuei lotu behar zaie:

– I- graduako mendekotasun egoera aitortuta duten pertsonen kasuan: atsedenerako zerbitzuak eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan, edozein modalitatetan –okupazionala salbu–, adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroan, adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), eta desgaitasuna edota buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan- Denak ere foru saretik kanpokoak izan behar dira.

– II- edo III- graduako mendekotasun egoera aitortuta duten pertsonen kasuan: atsedenerako zerbitzuak eguneko zerbitzu edo zentroan, edozein modalitatetan –okupazionala eta eguneko arretarako landa zentroak salbu–, adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroan, adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa) –Arabako Foru Aldundiak egiaztatuta baldin bada, II- eta III- graduei arreta emateko, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren esparruan–, desgaitasuna edota buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan, eta egoitza zerbitzu edo zentroan, kasu guztietan ere foru saretik kanpo.

2- Prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidearen eraginkortasuna, berriz, eskubidearen eraginkortasun progresiboari lotuta egongo da, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 46- artikuluan eta lehenengo xedapen iragankorrean aurreikusita dagoen bezala.

5- artikulua- Prestazio ekonomikoen arteko bateragarritasun eta bateraezintasun araubidea

1- Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoak bateraezinak izango dira beti elkarren artean- Beraz, prestazio horietako bat eskuratzen bada, ezinezkoa izango da beste edozein eskuratzea.

Aurrekoa gorabehera, Arabako Foru Aldundiak ematen duen babes maila osagarriaren esparruan, mendekotasun egoeran dagoen pertsona etxean egotea errazten duten laguntza, zainketak eta arreta emateko prestazio ekonomikoak bateragarri egin ahal izango dira I- graduako mendekotasun egoeran dauden eta Mendekotasuna Baloratzeko Baremoko 40 puntu edo gehiago dituzten pertsonentzat, II- graduako mendekotasuna dutenentzat edo III- graduako mendekotasuna dutenentzat, era honetara:

b) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazioa bateragarriak izan daitezke, baina horretarako ezinbestekoa da bigarrena lehenengoarekin bateragarria den zerbitzu bati lotuta egotea.

c) Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa bateragarri egin ahal izango dira, bigarrena lehenengoarekin bateragarria den zerbitzu batekin lotzen bada.

Bateragarritze horiek egiteak berekin ekarriko du foru dekretu honen 29- artikuluan aipatutako murriztapenak aplikatzea.

2- Era berean, foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoak ez dira bateragarriak izango beste prestazio hauekin:

a) 39/2006 Legea oinarri hartuta (39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa) Arabako Foru Aldundiak garatutako beste edozein prestazio ekonomiko, mendeko pertsonen autonomia pertsonala sustatzea nahiz eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko zailtasunak dituzten pertsonen arreta ematea helburu dutenak, laguntzarako produktuak eskuratzeko eta/edo etxebizitza moldatzeko direnak izan ezik.

b) Antzeko helburuetarako Arabako Foru Aldundiak garatutako beste prestazio batzuk, subjektu eragilea edo onuraduna mendekotasuna duen pertsona bada, nahiz eta prestazioa familia unitateko beste kide baten izenean egon.

3- Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoak bateragarriak izango dira Estatu araudian antzeko helburuetarako aurreikusitako beste prestazio batzuekin, subjektu eragilea edo onuraduna mendekotasuna duen pertsona bada, nahiz eta prestazioa familia unitateko beste kide baten izenean egon; zehazki:

a) Baliaezintasun handiagatik osagarria, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko Berariazko Xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 139.4 artikuluan arautzen duena.

b) Gutxienez ehuneko 75eko minusbaliotasun gradua duen 18 urtetik gorako seme-alabaren bat euren kargura daukatenentzako esleipen ekonomikoaren osagarria, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko Berariazko Xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 182 bis.2.c) artikuluan aurreikusten duena.

c) Kotizazio gabeko baliaezintasun pentsioaren osagarria, beste pertsona baten beharra edukitzeagatik jasotzen dena, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko Berariazko Xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 145.6 artikuluan aurreikusten duena.

d) Hirugarren pertsona baten laguntzarengatik sorospena, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2.c) artikulua aurreikusten duena, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haiek Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak mantentzen duena legegintzako errege dekretu hori indarrean jarri baino lehenagotik hura jasotzen duten eta dekretu horren xedapen iragankor bakarrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat.

Horrelako kasuetan, 3- paragrafo honetan aipatutako prestazio ekonomikoak foru dekretu honen 30- artikuluan araututako baldintzetan murriztuko dira.

6- artikulua- Prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen arteko bateragarritasun eta bateraezintasun araubidea

1- Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 49- artikuluan ezarritakoaren arabera, foru dekretu honetan arautzen diren Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoak zerbitzuekin bateragarriak izango dira baldintza hauetan:

a) I- graduko mendekotasuna aitortuta duten eta Mendekotasuna Baloratzeko Baremoko 40 puntu edo gehiago dituzten pertsonen kasuan, irizpide hauek aplikatuko dira:

– Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa hauekin bateragarria izango da:

- Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuekin.

- Etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin.

- Eguneko zerbitzuarekin edo zentroarekin, edozein modalitatetan –baita zentro okupazionalarekin ere–.

- Adinekoentzako gaueko zerbitzu edo gaueko zentroarekin.

- Atsedenerako zerbitzuarekin, eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan, edozein modalitatetan, zentro okupazionalan izan ezik, eta Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 45.4 artikuluan ezarritako gehieneko denbora muga gainditu gabe (45 egun urtean).

- Atsedenerako zerbitzuarekin, adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroan, aurreko lerroaldean aipatutako 45.4 artikulua ezartzen duen gehieneko denbora muga gainditu gabe (45 gau urtean).

- Adinekoentzako ostatu zerbitzuko (etxebizitza komunitarioa) atsedeen zerbitzuarekin eta desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzako atsedeen zerbitzuarekin, 45.4 artikuluan ezarritako gehieneko denbora muga (45 egun) gainditu gabe- Egonaldi horrek dirauen bitartean, foru dekretu honen 39.a) artikuluan xedatutakoarekin bat, familia inguruneke zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa eten egingo da, bai jasotzen den atsedeen zerbitzua gizarte zerbitzuen foru sarekoa denean, baita sare horretatik kanpoko denean eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bitartez jasotzen denean, atsedeen modalitatean.

– Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa hauekin izango da bateragarria:

- Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuekin.

- Eguneke zentroko zerbitzuarekin edo eguneke arreta zerbitzuarekin, edozein modalitatetan –baita zentro okupazionalarekin ere–.

- Adinekoentzako gaueko zerbitzuarekin edo gaueko zentroarekin.

- Atsedenerako zerbitzuarekin, eguneke zentroan edo eguneke arreta zerbitzuan, edozein modalitatetan, zentro okupazionalan izan ezik, eta Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 45.4 artikuluan ezarritako gehieneko denbora muga gainditu gabe (45 egun urtean).

- Atsedenerako zerbitzuarekin, adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroan, aurreko lerroaldean aipatutako 45.4 artikulua ezartzen duen gehieneko denbora muga gainditu gabe (45 gau urtean).

- Adinekoentzako ostatu zerbitzuko (etxebizitza komunitarioa) atsedeen zerbitzuarekin eta desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzako atsedeen zerbitzuarekin, 45.4 artikuluan ezarritako gehieneko denbora muga (45 egun) gainditu gabe- Egonaldi horrek dirauen bitartean, foru dekretu honen 39.a) artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eten egingo da, bai jasotzen den atsedeen zerbitzua gizarte zerbitzuen foru sarekoa denean, baita sare horretatik kanpoko denean eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bitartez jasotzen denean, atsedeen modalitatean.

– Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, bai modalitate arruntean bai atsedenerako modalitatean, I- gradua duten pertsonentzako zerbitzuak, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 45.1.a) artikuluan 45.4 artikuluekin lotuta aurreikusten diren horiek –kasu guztietan, foru saretik kanpokoak– erabiltzeko dena, bateragarria izango da berari lotutako zerbitzuarekin bateragarriak diren zerbitzu berberekin, aipatutako foru dekretuaren 50- artikuluan ezarritako baldintzekin.

b) II- edo III- graduko mendekotasun egoera aitortuta duten pertsonen kasuan, irizpide hauek aplikatuko dira:

– Familia inguruneke zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa hauekin bateragarria izango da:

- Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuekin.

- Etxez etxeko laguntza zerbitzuarekin.

- Eguneko zentroko edo eguneko arretarako zerbitzuarekin, edozein modalitatetan –baita zentro okupazionala ere–, eguneko arretarako landa zentroko eguneko zerbitzua salbu.

- Adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroarekin.

- Atsedenerako zerbitzuarekin, eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan, edozein modalitatetan, zentro okupazionalan eta eguneko arretarako landa zentroko eguneko zerbitzuan izan ezik, eta Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 45.4 artikuluan ezarritako gehieneko denbora muga gainditu gabe (45 egun urtean).

- Atsedenerako zerbitzuarekin, adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroan, aurreko lerroaldean aipatutako 45.4 artikulua ezartzen duen gehieneko denbora muga gainditu gabe (45 gau urtean).

- Adinekoentzako ostatu zerbitzuko (etxebizitza komunitarioa) atsedeen zerbitzuarekin –betiere ostatu zerbitzu horrek Arabako Foru Aldundiaren onarpena badu II- edo III- graduko pertsonak artatzeko–, desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzako atsedeen zerbitzuarekin eta egoitza zerbitzuko edo zentroko atsedeen zerbitzuarekin, 45.4 artikuluan ezarritako gehieneko denbora muga (45 egun) gainditu gabe- Egonaldi horrek dirauen bitartean, foru dekretu honen 39.a) artikuluan xedatutakoarekin bat, familia ingurune zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa eten egingo da, bai jasotzen den atsedeen zerbitzua gizarte zerbitzuen foru sarekoa denean, baita sare horretatik kanpokoa denean eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bitartez jasotzen denean, atsedeen modalitatean.

– Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa hauekin izango da bateragarria:

- Autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuekin.

- Eguneko zentroko zerbitzuarekin edo eguneko arretarako zerbitzuarekin, edozein modalitatetan –baita zentro okupazionalarekin ere–, eguneko arretarako landa zentroko eguneko zerbitzua salbu.

- Adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroarekin.

- Atsedenerako zerbitzuarekin, eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan, edozein modalitatetan, zentro okupazionalan eta eguneko arretarako landa zentroko eguneko zerbitzuan izan ezik, eta Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 45.4 artikuluan ezarritako gehieneko denbora muga gainditu gabe (45 egun urtean).

- Atsedenerako zerbitzuarekin, adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroan, aurreko lerroaldean aipatutako 45.4 artikulua ezartzen duen gehieneko denbora muga gainditu gabe (45 gau urtean).

- Adinekoentzako ostatu zerbitzuko (etxebizitza komunitarioa) atsedeen zerbitzuarekin –betiere ostatu zerbitzu horrek Arabako Foru Aldundiaren onarpena badu II- edo III- graduko pertsonak artatzeko–, desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzako atsedeen zerbitzuarekin eta egoitza zerbitzuko edo zentroko atsedeen zerbitzuarekin, 45.4 artikuluan ezarritako gehieneko denbora muga (45 egun) gainditu gabe- Egonaldi horrek dirauen bitartean, foru dekretu honen 39.a) artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eten egingo da, bai jasotzen den atsedeen zerbitzua gizarte zerbitzuen foru sarekoa denean, baita sare horretatik kanpokoa denean eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren bitartez jasotzen denean, atsedeen modalitatean.

– Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, bai modalitate arruntan bai atsedenerako modalitatean, II- edo III- gradua duten pertsonentzako zerbitzuak, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 45.1.b) artikuluan 45.4 artikularekin lotuta aurreikusten diren horiek –kasu guztietan, foru saretik kanpokoak– erabiltzeko dena, bateragarria izango da berari lotutako zerbitzuarekin bateragarriak diren zerbitzu berberekin, aipatutako foru dekretuaren 50- artikuluan ezarritako baldintzetan.

Lehen paragrafo honetan aurreikusitako bateragarritzeek eurekin ekarriko dute foru dekretu honen 28- artikuluan aipatutako murriztapenak aplikatzea.

2- Prestazio ekonomikoak bateragarriak izango dira Eusko Jaurlaritzak ematen duen telelaguntza zerbitzuarekin, salbu eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa denean, helburutzat duena modalitate arrunteko adinekoentzako ostatu zerbitzua (etxebizitza komunitarioa) erabili ahal izatea, edo desgaitasuna nahiz buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza, edo egoitza zerbitzu eta zentroak, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 50.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

3- Prestazio ekonomikoak bateragarriak izango dira prestazioaren titularra Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 79- artikulua araututako foru eskumeneko edozein zerbitzutako Plazak Kudeatzeko Programan sartzearekin- Zerbitzu horien artean daude adinekoentzako ostatu zerbitzuak (etxebizitza komunitarioak), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzak eta egoitza zerbitzu edo zentroak, edozein modalitatekoak.

7- artikulua- Banakako arreta programarekiko lotura

Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoetariko edozein emateak berekin ekarriko du titularrari banakako arreta programa ezartzea, eta programa horrek zehaztuko du dena delako prestazio ekonomikoaren egokitasuna edo, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasu zehatzean, hari lotutako zerbitzuaren egokitasuna, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 29- artikuluan ezarritakoarekin bat- Banakako arreta programa hori egitean, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 63- artikuluan ezarritakoari jarraitu behar zaio.

II-TITULUA- PRESTAZIO EKONOMIKOETARAKO ESKUBIDEAREN TITULARRAK, ESKURATZEKO BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

I- KAPITULUA- PRESTAZIO EKONOMIKOETARAKO ESKUBIDEARENTITULARRAK

8- artikulua- Eskubidearen titularrak

1- Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoetariko edozeinen titular izan ahaliko dira, oinarriko babes mailan, I., II- edo III- graduako mendekotasun egoera aitortuta duten pertsonak, foru dekretu honetan eta foru dekretu honen 1- artikuluko 2- eta 3- idatz zatiek aipatzen dituzten arauetan prestazio ekonomiko horietariko bakoitza eskuratzeko ezarritako betekizun orokorrak eta berariazkoak betetzen badituzte.

2- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen duen babes maila osagarria jaso ahal izango dute, artikuluko honetako 1- paragrafoan ezarritakoa betetzeaz gainera, euren mendekotasun egoera aitortzeko lehenengo eskaera aurkeztu aurreko 3 urteetan jarraian Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egon direla eta bertan egiaz bizi izan direla frogatzen duten pertsonak. Babes maila osagarri hori jaso ahal izango dute, halaber, mendekotasuna aitortzen zaien egunaren ondoren 3 urte jarraian egiten dituztenak Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta eta bertan egiaz bizitzen, hala eskatzen badute, foru dekretu honen 1- eranskineko 17- inprimakia betez, eta hala frogatzen badiote Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari.

Aurrekoa gorabehera, arreta txandakatzen den kasuetan, babes maila osagarria jasotzeko, frogatu egin beharko da, gainera, mendekotasuna duen pertsonak Arabako Lurralde Historikoan duela benetako bizilekua urtean 8 hilabetez, gutxienez ere.

II- KAPITULUA- PRESTAZIOAK ESKURATZEKO BETEKIZUNAK

9- artikulua- Prestazioak eskuratzeko betekizun orokorrak

Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoak eskuratu ahal izateko, aurreko artikuluan aipatutako pertsonak, mendekotasunaren aitortpena edukitzeaz gain, honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemari sartzeko baldintzak betetzea, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuan, foru dekretu honetan eta garapenerako ematen diren xedapenetan araututakoak.

b) Banakako arreta programa edukitzea, non zehaztuko baita prestazio ekonomikoa egokia dela, edo, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, prestazioari lotutako zerbitzua egokia dela.

c) Prestazio ekonomikoa izapidetzeko dokumentazio osagarria aurkezten den egunean Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egotea eta bertan edukitzea egiazko bizilekua; babes maila osagarria jasotzeko, horretaz gainera, aurreko artikuluko 2- paragrafoan adierazitako epeak bete behar dira lurralde historikoan erroldatuta eta bertan egiaz bizitzen.

d) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak edo kasuan kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuak eskatzen dizkien agiriak eta informazioa aurkeztea, prestazio ekonomikoa eman edo ukatu egin behar den erabakitzeke beharrezkoak direnak.

1- atala- Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa jasotzeko berariazko betekizunak

10- artikulua- Berariazko betekizunak

Berariaz, familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa eskuratu ahal izateko, 9- artikuluan azaldutako betekizun orokorrez gain, honako artikuluko honetan ezarritakoak bete behar dira:

a) Zaintzaile ez profesional batek zaindu behar du mendekotasuna duen pertsona, beraren ohiko bizilekuan- Aurrekoari dagokionez:

– Ohiko bizilekutzat hartu ahal izango da, salbuespenez, mendekotasuna duen pertsona aldi baterako bizi den lekua, bere etxebizitza moldatzeko obrak egiten diren bitartean edo ezinbesteko bestelako kasuetan.

– Ez dira ohiko bizilekutzat hartuko ospitale edo egoitza zerbitzu eta zentroak, euren modalitatea edozein izanda ere, ez adinekoentzako ostatu zerbitzuak (etxebizitza komunitarioak),

ezta desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzak ere, publikoak nahiz pribatuak.

b) Zaintzailea identifikatu beharko da- Berak beteko ditu zuzenean zaintza eginkizunak edo berak izango du zainketen ardura, nahiz eta eginkizun horietan beste laguntza batzuk jaso ahal izango dituen.

Familia txandakatzen den kasuetan, prestazio ekonomikoaren titularrak bizilekuz aldatu zein ez, prestazio ekonomikoa eman dadin, zaintzaile bakarra izendatu beharko da- Bera izango da erreferentziako zaintzaile nagusia prestazioaren esparruan eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekiko harremanetan, gainerako zaintzaileen adostasunez- Foru dekretu honen II-eranskineko 20- inprimakian dagoen eredu normalizatuan egingo da izendapen hori.

c) Zaintzaileak eman beharreko arreta eta zainketak eta haren prestakuntza mendekotasuna duen pertsonaren beharrez egokitu beharko zaizkie.

d) Etxebizitzak bizitzeko baldintza egokiak eduki beharko ditu, mendekotasuna duen pertsona behar bezala zaintzeko.

e) Prestazio ekonomikoaren titularrak eta zaintzaileak elkarrekin bizi beharko dute etxe berean, foru dekretu honen 12- artikuluan aurreikusten diren salbuespenak eta lehenengo xedapen gehigarriaren 1.a) puntuan azaltzen diren salbuespenezko egoerak salbu.

f) Prestazio ekonomikoaren titularrak eta zaintzaileak ahaidetasun lotura izan beharko dute elkarrekin- Halakotzat joko dira ezkontza, ezkontzaren pareko lotura –behar bezala frogatu beharrekoa–, eta odol, ezkontza edo adopzio bidezko hirugarren gradura arteko ahaidetasuna, baita mendekotasuna duen pertsonaren familia harrera ere- Hori guztia, alde batera utzita 12- artikuluan aurreikusitako salbuespenak- Familiako harreman horren esparruan eman behar dira zainketak, inola ere ez lan kontratuaren edo bestelako kontratuaren bidezko harremanen esparruan.

g) Zaintzaile ez profesionalak hurrengo artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

h) Baimena eman beharko zaio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, Gasteizen biziz gero, edo kasuan kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuari, Arabako Lurralde Historikoko beste udalerrri batean biziz gero, behar diren esku hartze teknikoak egin ditzan bizilekuan, foru dekretu honen 9., 10- eta 11- artikuluetako betekizunak betetzen direla egiaztatze aldera, eta prestazioaren egokitasunerako baldintzei eusten zaiela egiazta dezan, 48- artikuluan adierazitako moduan.

11- artikulua- Zaintzaile ez profesionalari aplikatu beharreko betekizunak

Mendekotasuna duen pertsona zaindu eta artatzeko ardura duen zaintzaile ez profesionalak betekizun hauek bete beharko ditu:

a) 18 urte edo gehiago edukitzea.

b) Legez Espainiako Estatuan bizi izatea.

c) Zaintzen duen pertsonarekin ahaidetasun lotura edukitzea, aurreko artikuluko f) letran aipatutako horietarikoren bat.

d) Mendekotasuna duen pertsonaren bizileku berean erroldatuta egotea eta bertan egiaz bizi izatea Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 64.1 artikuluan aipatzen den dokumentazio osagarria aurkezten den eguna baino urtebete lehenagotik, foru dekretu honen 12- artikuluan aurreikusitako salbuespenak eta lehenengo xedapen gehigarriaren 1.a) atalean azalduetako salbuespenezko egoerak salbu- Bizileku berean erroldatuta egon eta egiaz bizi izate hori bizikidetzaren eta emandako arretaren adierazgarritzat joko da.

Familiakoak txandakatzen diren kasuetan, 10- artikuluko b) letran ezarritakoaren arabera zaintzaile nagusi izendatzen den pertsonari eskatuko zaio erroldatuta egotearen eta egiaz bizi izatearen baldintza.

e) Gaitasun fisiko eta psikiko nahikoa izatea bere kabuz modu egokian bete ahal izateko zaintza eta laguntza eginkizunak, hau da, funtsean, beste pertsona bati lagundu ahal izateko Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 2.3 artikuluan azaltzen diren eguneroko jardueretan.

Zaintzaileak gaitasunik baduen ala ez zehazteko garaian kontuan hartuko dira zaintza lanek dituzten zailtasunak eta, halaber, eginkizun horietan zaintzaileak jaso litzakeen laguntzak- Horrela, prestazioaren titularrari emango zaion arretaren kalitatea ez ezik zaintzailaren osasuna ere babestu nahi da.

Kontuan hartuko da, betekizun honi dagokionez, mendekotasun egoeran dagoen edo adin handia duen pertsona bat –adinak, erreferentziako profesionalaren txosten teknikoaren arabera, zaintza eta laguntza eginkizunak bere kabuz betetzea eragozten dionean– ez dela mendekotasun egoeran dagoen beste pertsona baten zaintzaile nagusia izan behar.

f) Mendekotasuna duen eta prestazioaren titularra den pertsona zaintzeko behar adina denbora edukitzea- Aurrekoaren ildotik, zaintzaile ez profesionalak ezingo ditu mendekotasuna duten hiru pertsona baino gehiago zaindu, salbu eta mendekotasuna duten pertsona horiek guztiak adingabeak direnean eta zaintzailea haien gurasoa denean, odolekoa nahiz adopziozkoa, edo familia harrera egiten dienean.

Halaber, zaintzaile beraren jarraitutasunak zainketaren kalitatea areagotzen duenez, zaintzaileak prest egon beharko du zaintza eta laguntza egokia eta etengabea emateko urtebetean, gutxienez, ezusteko inguruabarrengatik epe hori bete ezin duen kasuetan izan ezik- Familiakoak txandakatzen badira, argi zehaztuko da urte naturalean zehar zaintzaile bakoitzari zein aldi dagokion, eta haietako bakoitzak gutxienez hiru hilabete egin beharko ditu jarraian.

g) Prest egotea administrazio publikoek antolatzen dituzten prestakuntza ekintzetan parte hartzeko, proposatzen zaizkion prestakuntza ekintzak egitea, betiere mendekotasuna duen pertsonaren zainketa batekin bateragarriak badira, eta erreferentziako gizarte zerbitzuetatik ematen zaizkion jarraibide, irizpide edo aholkuak aintzat hartzea.

h) Mendekotasuna duen Pertsona Zaintzeko Konpromisoa sinatzea, foru dekretu honen II-eranskineko 19- inprimakian dagoena.

12- artikulua- Ahaidetasunaren eta bizikidetzaren betekizunei aplikatu ahal zaizkien salbuespenak

1- Ahaidetasunaren eta bizikidetzaren betekizunak, 10- eta 11- artikuluan eskatutakoak, salbuespenez kendu ahal izango zaizkie I., II- edo III- graduako mendekotasuna duten pertsonen, bizi diren lekuan behar bezala baimendutako baliabide publiko edo pribatuak nahikoak ez badira, despopulazioarengatik, inguruabar geografikoarengatik edo bestelakoarengatik, eta horrek bestelako laguntza modalitateak eragozten edo zailtzen baditu, zerbitzuak izan nahiz prestazio ekonomikoak izan- Horrelako kasuak salbuespen izango dira, eta jasorik utzi beharko da aipatutako inguruabar berezietatik zein gertatu den- Horrelakoetan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak baimena eman ahalko du inguruko pertsona batek zainketa ez profesionaletan jardun dezan, nahiz eta aurreko artikuluan eskatutako ahaidetasun loturarik ez izan- Nahikoa izango du mendekotasuna duen pertsonaren udalerrian edo auzoko udalerriri batean bizitzea urtebete lehenagotik.

2- Era berean, 10- eta 11- artikuluetan eskatutako ahaidetasun loturaren salbuespena egin ahal izango da honako kasu hauetan:

a) Frogatzen baldin bada lotura pertsonala dagoela I., II- edo III- graduako mendekotasuna aitortuta duen pertsonaren eta zaintzailearen artean, elkarrekin bizi izan direlako gutxienez 5

urtean jarraian, dokumentazio osagarria aurkezten den egunaren aurre-aurreko bost urteetan hain zuzen- Betiere inguruabar hori aldi osorako frogatu behar da errolda agiriaren bitartez, eta erreferentziako gizarte zerbitzuko teknikariak benetako maitasun eta zaintza harremana dagoela iritzi behar dio.

b) Erlijiosoek euren komunitateko pertsonak zaintzen dituztenean.

3- Halaber, 10- eta 11- artikuluetan ezarritako betekizunak, aurretiazko bizikidetzarena eta erroldatzearena, salbuespenez kendu ahal izango dira I., II- eta III- graduatarako, zaintzaile ez profesionala, ahaidea izan arren, Arabako Lurralde Historikoan bai, baina mendekotasuna duen pertsonaren bizilekuan erroldatuta ez dagoenean edo bertan erroldatuta urtebete baino gutxiago egin duenean, honako egoera hauetarikoren bat gertatzen bada eta txosten teknikoan adierazten bada ondo erantzungo zaiela mendekotasuna duen pertsonaren beharriaz:

a) Zaintzailea mendekotasuna duen pertsonaren etxera joatea hura zaintzera.

b) Mendekotasuna duen pertsona zaintzailearen etxera joatea zainketak jasotzera.

4- Era berean, 11- artikuluko d) letran ezarritako betekizuna, aurretiazko erroldatzearena, salbuespenez kendu ahal izango da II- eta III- graduatarako, salbuespena justifikatzen duen txosten teknikoa eman eta gero, honako inguruabar hauetarikoren bat gertatzen bada eta txosten teknikoak adierazten badu ondo erantzungo zaiela mendekotasuna duen pertsonaren beharriaz:

a) Mendekotasuna duen pertsona etxera itzultzea egoitza edo ospitale zerbitzu batean egonaldia egin ondoren.

b) Ezustean mendekotasun egoera gertatzea.

5- Artikulu honetan azaldutako kasu guztietan eskatuko da zaintzaile ez profesionala ez dardila izan etxeko langilea onuradunaren etxean, eta arreta eta zainketak ez daitezela eman lan kontratu baten edo bestelako kontratu baten bidezko harremanen esparruan.

13- artikulua- Zaintzailea borondatez afiliatzea Gizarte Segurantzaz

1- Nahi badute, zaintzaileek hitzarmen berezi bat sinatu ahal izango dute, Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileen Gizarte Segurantzaz arautzen duen maiatzaren 11ko 615/2007 Errege Dekretuan araututakoa- Hitzarmen hori zaintzaile ez profesionalaren eta Gizarte Segurantzazko Diruzaintza Nagusiaren artekoa izango da.

2- Hitzarmen berezi horretan, Gizarte Segurantzazko kotizazioak hitzarmena sinatzen duen zaintzailearen kargura izango dira oso-osorik.

14- artikulua- Zaintzaile ez profesionala aldatzea

1- Familia ingurunean zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalari laguntzeko prestazio ekonomikoaren titularrak edo, hala behar denean, haren legezko ordezkariak edo egitatezko zaintza daukan pertsonak zaintzailea aldatu nahi badu, inguruabar hori jakinarazi beharko dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, foru dekretu honen II- eranskineko 21- inprimakian dagoen eredu normalizatua erabiliz- Jakinarazpen hori zaintzailea aldatu aurretik egin ahal izango da, edo ondoren, baina betiere zaintzailea aldatzen denetik 10 egun baliadun igaro baino lehen.

2- Zaintzaile berriak, aurrekoak bezala, foru dekretu honen 11- artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko ditu, eta bestela prestazio ekonomikoa azkendu egingo da hura jasotzeko betekizun bat betetzeari utzi zaiolako, foru dekretu honen 42.1.b) artikuluan aurreikusita dagoen moduan.

Aurrekoa gorabehera, ez da eskatuko titularraren etxe berean urtebete lehenagotik erroldatuta egotea eta egiaz bizitzea, baldin eta zaintzailea arrazoi hauetakoren batengatik aldatzen bada:

a) Lehengo zaintzailearen heriotza.

b) Lehengo zaintzailearen gaixotasun larria.

c) Mendekotasuna duen pertsona Arabako Lurralde Historikora aldatzea, jatorrizko lurralde historikoan edo autonomia erkidegoan prestazioa onartuta daukala.

d) Behar bezala justifikatutako beste egoera batzuk (betiere banakako arreta programan erabakitzen bada egokia dela prestazioak irautea).

Horrelakoetan eskatuko da zaintzaile berria mendekotasuna duen pertsonaren etxe berean erroldatuta egon dadila eta benetan bizi izan dadila aldaketa jakinarazten den unetik aurrera, gutxienez, eta prestazioak indarrean dirauen bitartean, alde batera utzita foru dekretu honen 12- artikuluan aurreikusitako salbuespenak eta lehenengo xedapen gehigarriko 1.a) atalean azaldutako salbuespenezko egoerak.

2- atala- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa jasotzeko berariazko betekizunak

15- artikulua- Mendekotasun egoera duen pertsonak bete beharreko betekizunak

Berariaz, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa jaso ahal izateko, mendekotasuna duen pertsonak, 9- artikuluan azaldutako betekizun orokorrez gainera, honako hauek bete beharko ditu:

a) Gaitasuna izatea behar dituen zerbitzuak zehazteko, horiek kontrolatzeko eta bere kabuz jarraibideak emateko laguntzaile pertsonalari –edo laguntzaile pertsonalei– zerbitzuok egiteko moduari buruz- Mendekotasuna duen pertsonak eginkizun horietarako gaitasunik ez badu, mendekotasun egoera aitortzeko prozeduran frogatutako legezko ordezkari edo egitatezko zaintza daukan pertsonak beteko ditu eginkizun horiek, edo, adingabeen kasuan, guraso ahala, tutoretza edo familia harrera esleituta daukaten pertsonak, edo egitatezko zaintza egikaritzen dutenek, betiere, azken kasu horretan, familia harrera formalizatzeko bidean badago, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 2.4 artikuluan ezarritako moduan.

b) 3 urte edo gehiago edukitzea.

c) Hezkuntza eta/edo lanean jardutea eta jarduera horietarako laguntza behar izatea, eta/edo laguntza behar izatea eguneroko bizitzako oinarritzko eta/edo tresnen bidezko jarduerak egiteko.

d) Prestazio ekonomikoa hurrengo artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen laguntzaile pertsonal bat edo gehiago kontratatuzko erabiltzea.

e) Etxean sartzeko baimena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, Gasteizen biziz gero, edo erreferentziako oinarritzko gizarte zerbitzuari, Arabako Lurralde Historikoko beste udalerrri batean biziz gero, egiaztatu ahal izan dadin prestazio honen egokitasunerako baldintzei eusten zaiela, foru dekretu honen 49- artikuluan aurreikusitako moduan.

16- artikulua- Laguntzaile pertsonalari aplikatu beharreko betekizunak

Laguntzaile pertsonalek, titularrari 2.b) artikuluan ezarritako xederako zerbitzuak ematen dizkioten profesionalak diren aldetik, betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) 18 urte edo gehiago izatea.

b) Legez Espainiako Estatuan bizi izatea.

c) Kontratu mota hauetariko baten bidez ematea euren zerbitzuak:

– laguntza pertsonalerako zerbitzuak ematen dituen erakunde pribatu batekin egindako lan kontratua; erakunde horrek zerbitzu kontratua sinatuko du mendekotasuna duen pertsonarekin edo haren legezko ordezkari edo egitatezko zaintza daukan pertsonarekin;

– prestazio ekonomikoaren titularrarekin edo haren legezko ordezkari edo egitatezko zaintza daukan pertsonarekin sinatutako lan kontratua, berdin da bi alderdien arteko harreman hori zuzenean eratu den edo laneratze agentzia batek bideratu duen;

– prestazio ekonomikoaren titularrarekin edo haren legezko ordezkari edo egitatezko zaintza daukan pertsonarekin sinatutako zerbitzu kontratua, laguntzaile profesionalak profesional autonomo gisa diharduen kasuetan.

d) Honako xehetasun hauek azaltzea, c) letran aipatutako hiru kontratu modalitateetan: laguntzaile pertsonalak bete beharreko eginkizunak, lan baldintzak, eta zer lanaldi mota kontratatu den, hots, lanaldi osoa edo lanaldi partziala den, eta, azken kasu horretan, partzialtasun koefizientea.

e) Etxe berean bi pertsonari laguntza pertsonalerako zerbitzuak ematen bazaizkie, bi zerbitzuak kontratu berean edo kontratu banatan formalizatu ahal izango dira eta horrek ez du eraginik izango ordaindu beharreko prestazio ekonomikoaren zenbatekoan, foru dekretu honen 35- artikuluan ezarritakoaren arabera.

f) Gizarte Segurantzako afiliazio, alta eta kotizazio aldetik dagozkien baldintzak betetzea.

g) Laguntza pertsonalerako zerbitzuak egin ahal izateko behar diren kualifikazio baldintzak betetzea- Hori frogatzeko, titulazio hauetakoren bat (edo agiri baliokidea) erabili ahal izango da, baldin eta, teknikarien iritziz, titulazio hori egokia bada pertsonaren beharrian berezietarako eta adinerako:

– Erizaintzako Zainketa Osagarrietako teknikariaren titulua.

– Gizarte eta Osasun Laguntzako teknikariaren titulua.

– Mendekotasuna duten Pertsonen Laguntzako teknikariaren titulua.

– Gizarteratzeko, Komunikazio bidezko Bitartekaritzako, Gizarte eta Kultura Animazioko edo Haur Hezkuntzako teknikariaren titulua.

– Goian aipatutakoak baino goragoko titulazioak, Osasun Zientzien, Hezkuntza Zientzien eta Gizarte Zientzien adarretakoak.

– Mendekotasuna duten Pertsonen Etxean Gizarte eta Osasun Laguntza Emateko profesionaltasun agiria.

– Mendekotasuna duten Pertsonen Gizarte Erakundeetan Gizarte eta Osasun Laguntza emateko profesionaltasun agiria.

– Desgaitasuna duten Pertsonen Laneratze profesionaltasun agiria.

Laguntzaile pertsonal gisa diharduten pertsona guztiei eskatuko zaie kualifikazio hori, alde batera utzita zer motatako kontratuarekin betetzen dituzten eginkizun horiek, eta ezertan eragotzi gabe foru dekretu honen bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoa- Prestazioaren titularrak erakunde pribatu batekin kontratatzen badu laguntza pertsonalerako zerbitzua, artikuluko c) letrako lehen puntuaz azaldutako moduan, orduan erakunde horrek bermatu egin behar du, 32.c) artikuluko azken tartekian aurreikusitako eran, erakunde horren barruan laguntza pertsonaleko eginkizunak dituzten pertsona guztiek atal honetan ezarritako prestakuntza arloko betekizunak betetzen dituztela.

h) Ez izatea onuradunaren ezkontidea edo ezkontzaren pareko harremana daukan pertsona, edo odoleko, ezkontza zein adopzio bidezko hirugarren gradura arteko ahaidea, edo familia harreraren bidezkoa.

17- artikulua- Laguntzaile pertsonala aldatzea

1- Baldin eta, lan kontratuaren bidez edo zerbitzuak emateko kontratuaren bidez laguntzaile pertsonala kontratatu eta gero, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren titularrak edo

haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintza daukanak laguntzaile pertsonala aldatzea erabakitzen badu, jakitun jarri beharko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, foru dekretu honen III- eranskineko 23- inprimakian dagoen eredu normalizatua erabiliz- Jakinarazpen hori laguntzaile pertsonala aldatu aurretik nahiz ondoren egin ahal izango da, betiere laguntzaile pertsonala aldatzen denetik 10 egun baliodun igaro baino lehenago.

2- Laguntzaile pertsonal berriak, aurrekoak bezala, foru dekretu honen 16- artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko ditu, eta bestela prestazio ekonomikoa azkendu egingo da hura eskuratzeko betekizun bat betetzeari utzi zaiolako, foru dekretu honen 42.1.b) artikuluan aurreikusita dagoen moduan.

18- artikulua- Laguntzaile pertsonala ordezte

1- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren titularrak kontrataturiko laguntzaile pertsonalak 15 egun natural baino gehiago ematen baditu aldi baterako ezintasun egoeran, titularrak edo horren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintza daukanak jakitun jarri beharko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, 15 eguneko aldi hori gainditu eta berehala- Horretarako foru dekretu honen III- eranskineko 23- inprimakian dagoen eredu normalizatua erabiliko du.

2- Aurreko paragrafoan aipatutako ohiko laguntzaile pertsonalaren aldi baterako ezintasunak dirauen bitartean titularrak edo horren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintza daukan pertsonak ordezkari kontratatu nahi badu, jakitun jarri beharko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, foru dekretu honen III- eranskineko 23- inprimakian bertan dagoen eredu normalizatua erabiliz- Jakinarazpen hori laguntzaile pertsonalaren ordezkari hartu aurretik edo ondoren egin daiteke, betiere laguntzaile pertsonala ordezten denetik 10 egun baliodun igaro baino lehen.

Ohiko laguntzaile pertsonalaren ordezkariak, aurrekoak bezala, foru dekretu honen 16- artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko ditu, eta bestela prestazio ekonomikoa azkendu egingo da hura eskuratzeko betekizun bat betetzeari utzi zaiolako, foru dekretu honen 42.1.b) artikuluan aurreikusita dagoen moduan.

3- Prestazioaren titularrak ez badu ordezkari laguntzaile pertsonalik kontratatzen bere ohiko laguntzaile pertsonalaren ezintasun aldirako, prestazio ekonomikoa etenda egongo da ezintasun aldiko hamaseigarren egunetik hasi eta ohiko laguntzaile pertsonala lanpostura itzuli arte, betiere ezintasun aldiak 6 hilabete baino gehiago irauten ez badu, prestazioa eteten den egunetik aurrera zenbatuta- Gehieneko epe hori igarota, besterik gabe prestazio ekonomikoa azkendu egingo da, foru dekretu honen 40.c) artikuluan 42.1.k) artikuluekin lotuta xedatzen denarekin bat etorritz.

3- atala- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa eskuratzeko berariazko betekizunak

19- artikulua- Mendekotasuna duen pertsonak bete beharreko berariazko betekizunak

Berariaz, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa jaso ahal izateko, mendekotasuna duen pertsonak, 9- artikuluan ezarritako betekizun orokorrez gainera, berariazko betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Prestazioari lotutako zerbitzua jasotzeko betekizunak betetzea.

b) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, modalitate arruntekoa, gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko zerbitzu eta zentroak erabiltzekoa izanez gero, hurrengo artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituen zerbitzu edo zentro batean plaza daukala frogatu beharko du mendekotasuna duen pertsonak.

Eguneko zentro edo zerbitzu baten erabiltzaile batek foru zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa jasotzen badu, modalitate arruntekoa, 45 egunetik gorako eta 3 hilabetetik berako egonaldia egiteko adinekoentzako ostatu zerbitzu batean (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza batean edo

egoitza zerbitzu nahiz zentro batean –kasu guztietan, gizarte zerbitzuen foru saretik kanpokoak–, eguneko zentro edo zerbitzuko plaza gorde ahal izango du, baldin eta zerbitzu horren prezio publikoaren ehuneko 90 ordaintzen badu, adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan edo egoitza zentroan egiten duen lehenengo egunetik aurrera.

c) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, atsedenerako modalitatekoa, adinekoentzako ostatu zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza edo egoitza zentro nahiz zerbitzua –guztiak ere gizarte zerbitzuen foru saretik kanpokoak– erabiltzekoa izanez gero, mendekotasuna duen pertsona bere etxean bertan zaindu behar dute ohikotasunez bai atsedenerako egonaldiaren aurretik bai ondoren- Aurrekoa ez da eskatuko baldin eta atsedenerako egonaldi horretan mendekotasuna bat-batean larriagotzen bada edo familiaren egoeraren ezusteko aldaketaren batek etxera itzultzea eragozten badio mendekotasuna duen pertsonari; horrelakoetan, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, hasiera batean atsedenerako modalitatean emandakoa, modalitate arruntekoa bihurtuko da eta azken modalitate horri dagokion zenbatekoa aplikatuko da mendekotasuna duen pertsonaren egoera larriagotu den egonaldiaren hasieratik.

20- artikulua- Zerbitzu edo zentroak bete beharreko betekizunak

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, edozein modalitatetako, lotuta daukan zerbitzu edo zentroak honako betekizun hauek bete beharko ditu:

a) Funtzionamendurako baimena edukitzea, Arabako Foru Aldundiak emana, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 41.10 artikuluan baimentzeko, ikuskatzeko, erregistratzeko eta homologatzeko ematen zaizkion eskumenak erabiliz eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuak nola baimendu, erregistratu, homologatu eta ikuskatu arautzen duen martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, zerbitzu edo zentro motaren arabera materialen, eginkizunen eta langileriaren aldetik bete behar diren baldintzak betetzen direla egiaztatu eta gero.

b) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa atxikita daukan zentro edo zerbitzu gisa jarduteko onarpena edukitzea, Arabako Foru Aldundiak emana- Onarpen horren esparruan zentro edo zerbitzuari eskatuko zaio foru zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, modalitate arruntekoa, daukaten pertsonen harremanak formalizatzeko egiten dituen kontratuak mugagabeak izan daitezela, baina hasierako probaldi bat izan dezatela.

c) Arabako Lurralde Historikoan kokatuta egotea, foru dekretu honen lehenengo xedapen gehigarriko 1.c) atalean aurreikusitako salbuespeneko egoera salbu.

21- artikulua- Zerbitzuz edo zentroz aldatzea

1- Onuradunak edo haren legezko ordezkariak nahiz egitatezko zaintzaileak zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, modalitate arruntekoa, atxikita daukan zerbitzua edo zentroa utzi nahi badu beste batera aldatzeko (hura ere izaera berekoa eta gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko), zerbitzuz edo zentroz aldatzeko baimena emateko eta prestazio ekonomikoa mantentzeko eskatu beharko dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, foru dekretu honen IV- eranskineko 27- inprimakian dagoen eredu normalizatua erabiliz- Horretarako, eskabidearekin batera kontratu berria –edo aurrekontratu– aurkeztuko du, erabili nahi duen zerbitzu edo zentroarekin sinatutakoa- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari kudeatzaileak 30 egun naturaleko epean ebatziko du, eskaera aurkezten den egunetik hasita- Administrazioaren isiltasun kasuetan baimena eman dela ulertu beharko da.

2- Zerbitzuz edo zentroz aldatzeko eskaera horrek ez du berekin ekarriko prestazioa azkentzea, betiere zerbitzu edo zentro berriak aurreko artikuluan ezarri diren betekizunak betetzen baditu eta zerbitzu edo zentro aldaketaren ondorioz ez bada inola ere artapenaren etenaldirik gertatzen.

III- KAPITULUA- PRESTAZIO EKONOMIKOEI LOTUTAKO BETEBEHARRAK

22- artikulua- Betebehar orokorrak

Orokorrean, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuan ezarritako betebeharez gainera, prestazio ekonomikoaren titularrak edo haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzaileak, prestazio ekonomikoa jasotzearekin batera, honako betebehar hauek hartzen ditu bere gain:

- a) Prestazio ekonomikoa zertarako eman den hartarako bakarrik erabiltzea, hurrengo artikuluetan betebehar hau prestazio ekonomiko bakoitzerako berariaz arautzen den moduan.
- b) Prestazioa eskuratzeko baldintzei eustea hura eskuratutakoan eta prestazioaren titularrak diren aldi osoan.
- c) Mendekotasun egoera aitortzeko kontuan hartu den egoeraren edozein aldaketa eta prestazio ekonomikoen iraupenean edo zenbatekoan eragina izan dezaketen aldaketa guztiak, ahalmen ekonomikoaren zehaztapenean eragina izan dezaketen aldaketak barne, gertatzen diren egunetik 15 egun natural igaro baino lehen jakinaraztea.
- d) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak edo kasuan kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuak prestazio ekonomikoaren kudeaketarako eskatzen dizkien informazioak ematea eta agiriak aurkeztea.
- e) Emandako prestazio ekonomikoak nola erabiltzen ari diren ikuskatzen uztea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari.
- f) Bidegabeki edo neurriz gain jasotako prestazioen zenbatekoa itzultzea.
- g) Prestazio mota bakoitzaren xedearen ondoriozko beste betebehar guztiak.

23- artikulua- Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoari lotutako berariazko betebeharrak

1- Berariaz, familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoaren titularrak edo haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzaileak, prestazio ekonomikoa jasotzeaz batera, honako betebehar hauek hartzen ditu:

- a) Prestazio ekonomikoa osorik erabiltzea mendekotasuna duen pertsonaren artapen beharrianak asetzeko.
- b) Baimena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, Gasteizen biziz gero, edo erreferentziako oinarrizko gizarte zerbitzuari, Arabako Lurralde Historikoko beste udalerrri batean biziz gero, foru dekretu honen 10.h) artikuluan aipatutako baimena alegia, behar diren esku hartze teknikoak egin ditzan bizilekuan, foru dekretu honen 9., 10- eta 11- artikuluetako betekizunak betetzen direla egiaztatze aldera, eta prestazioaren egokitasunerako baldintzei eusten zaiela egiaztatzeko jarraipena egin dezan, 48- artikuluan adierazitako moduan.
- c) Zaintzaile ez profesionala aldatzen bada, aldaketa hori Gizarte Ongizaterako Erakundeari jakinaraztea, 14- artikuluan ezarritako moduan.

2- Zaintzaile ez profesionalaren berariazko betebeharra izango da mendekotasuna duen pertsonari bere mendekotasun egoerarako arreta eta zainketa egokiak ematea, betiere foru dekretu honen 11- artikuluko h) letran aipatzen den eta II- eranskinen 19- inprimakian jasorik dagoen Mendekotasuna duen Pertsona Zaintzeko Konpromisoan ezarritako baldintzak betez.

24- artikulua- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoari lotutako berariazko betebeharrak

Berariaz, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren titularrak edo haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzaileak, prestazio ekonomikoa jasotzearekin batera, honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:

a) Prestazio ekonomikoa osorik erabiltzea laguntzaile pertsonal bat edo gehiago edo laguntza pertsonaleko zerbitzu bat kontratatzearen ondoriozko gastuei aurre egiteko, eta betebeharrak hori betetzen duela frogatzea, gastu guztiak egiaztatzeko agiri hauek aurkeztuz:

- prestazioaren titularrak enpresa batekin kontratatu badu laguntza pertsonaleko zerbitzua, enpresa horren faktura;
- zerbitzua profesional autonomo batekin kontratatu badu, profesional horren faktura;
- laguntzaile pertsonalari lan kontratua egin bazaio, soldata ordaindu izanaren frogagiria.

Gastuen justifikazio hori urtean behin egin behar da, hots, lehenengo hiruhilekoan egingo da aurreko urteko justifikazioa, prestazio ekonomikoak dirauen bitarte osoan.

Prestazio ekonomikoaren titularrak –edo haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzaileak– lan kontratua egiten badiu laguntzaile pertsonalari, Gizarte Segurantzako afiliazio eta kotizazio betebeharrak betetzen direla egiaztatuko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekin lankidetzan- Aldez aurretik onuradunak horretarako baimena emango du foru dekretu honetako 12- inprimakia erabiliz- Zerbitzua profesional autonomo bati kontratatzen zaion kasuetan, era berean, kotizazioa ordaintzen ari dela egiaztatuko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, Gizarte Segurantzako Diruzaintzarekin lankidetzan, eta aldez aurretik horretarako baimena emango da foru dekretu honetako 12- formularioa erabiliz.

b) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari jakinaraztea zaintzaile profesionalentzako Gizarte Segurantzari buruz ezarritako betebeharren inguruko edozein gorabehera, titularraren eta laguntzaile pertsonalaren arteko lan kontratua dagoen kasuetan.

c) Baimena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, Gasteizen biziz gero, edo erreferentziako oinarrizko gizarte zerbitzuari, Arabako Lurralde Historikoko beste udalerritan biziz gero, foru dekretu honen 15.e) artikuluan aipatutako baimena alegia, bizilekuan sar dadin, prestazioaren egokitasunerako baldintzei eusten zaiela egiaztatzeko, foru dekretu honen 49- artikuluan ezarritako moduan.

d) Hala behar denean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari jakinaraztea laguntzaile pertsonalaren aldaketa, foru dekretu honen 17- artikuluan adierazitako eran, eta/edo ordezkari laguntzaile pertsonalaren kontratazioa, ohiko laguntzaile pertsonalaren aldi baterako ezintasuna dela eta, 18- artikuluan adierazitako eran.

25- artikulua- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak dakartzan berariazko betebeharrak

Berariaz, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, modalitate arruntekoa, gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko zerbitzu edo zentroak erabiltzekoa, jasotzen duen titularrak edo haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzaileak, prestazio ekonomikoa jasotzearekin batera, honako betebeharrak hartzen ditu bere gain:

a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari baimena ematea zerbitzuaren erabileraren jarraitutasunari buruzko datuak eskatzeko prestazio ekonomikoa lotuta daukan zerbitzu edo zentroari.

b) Prestazio ekonomikoaren zenbateko osoa erabiltzea kontraturiko zerbitzu edo zentroaren kostua ordaintzeko, eta urtero frogatzea betebeharrak hori betetzen dela, urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan aurkeztuz aurreko urtean egindako egiazko gastuaren justifikazioa eta behar diren agiriak.

c) Hala behar denean, zentroz edo zerbitzuz aldatzeko baimena eskatzea, 21- artikuluan adierazitako moduan.

III- TITULUA- PRESTAZIOEN ARAUBIDE EKONOMIKOA**26- artikulua- Prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoa finkatzea**

Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoak Diputatuen Kontseiluaren foru dekretuz onartuko dira I., II- eta III- mendekotasun graduatarako, honako maila hauek adieraziz:

a) Oinarrizko babes maila, prestazioak jasotzeko betekizunak betetzen dituzten pertsona guztiei aplikatzen zaiena.

b) Babes maila osagarria, Arabako Lurralde Historikoarekiko lotura berezia dutela frogatzen dutenei aplikatzen zaiena lurralde osoan, foru dekretu honen 8.2 artikuluan ezarritako moduan.

27- artikulua- Prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehaztea pertsona bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera

1- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 33.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, pertsona bakoitzari dagozkion prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazteko kontuan hartuko da haren ahalmen ekonomikoa- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoei buruzko foru araudian ezarritakoaren arabera baloratuko da ahalmen ekonomikoa.

Aurrekoa ez da aplikatuko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ematen denean atsedenerako zerbitzuak erabili ahal izateko eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan, adinekoentzako gaueko zerbitzuan edo zentroan, adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan, edo egoitza zerbitzuan edo zentroan –denak ere gizarte zerbitzuen foru saretik kanpokoak-- Horrelakoetan foru dekretuz zehazten diren zenbatekoak bakarrik hartuko dira kontuan, 26- artikuluan aurreikusi bezala.

2- Onuradun bakoitzari aitortu beharreko prestazio ekonomikoaren zenbatekoa zehazteko, ekitaldi bakoitzerako indarra duen gehieneko zenbatekoari, aurreko artikuluan aipatutakoari, honako ehuneko hauek aplikatuko zaizkio, artikulua honetako aurreko paragrafoan ezarritako eran kalkulaturako ahalmen ekonomikoaren arabera:

a) Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoaren kasuan:

BANAKOAREN AHALMEN EKONOMIKOA URTEAN	EHUNEKOA
LGSaren %750 baino gehiago	%40
LGSaren %650,01 eta %750 bitartean	%50
LGSaren %550,01 eta %650 bitartean	%60
LGSaren %450,01 eta %550 bitartean	%70
LGSaren %350,01 eta %450 bitartean	%80
LGSaren %250 eta %350 bitartean	%90
LGSaren %250 baino gutxiago	%100

b) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan:

BANAKOAREN AHALMEN EKONOMIKOA URTEAN	EHUNEKOA
LGSaren %1.000 baino gehiago	%50
LGSaren %850,01 eta %1.000 bitartean	%60
LGSaren %700,01 eta %850 bitartean	%70
LGSaren %550,01 eta %700 bitartean	%80
LGSaren %400 eta %550 bitartean	%90
LGSaren %400 baino gutxiago	%100

c) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa denean, modalitate arruntekoa, gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko zerbitzuak erabiltzekoa:

BANAKOAREN AHALMEN EKONOMIKOA URTEAN	EHUNEKOA
LGSaren %1.050 baino gehiago	%40
LGSaren %900,01 eta %1.050 bitartean	%50
LGSaren %750,01 eta %900 bitartean	%60
LGSaren %600,01 eta %750 bitartean	%70
LGSaren %500,01 eta %600 bitartean	%80
LGSaren %400 eta %500 bitartean	%90
LGSaren %400 baino gutxiago	%100

Prestazio ekonomikoen banakako zenbatekoari, 2- paragrafoan ezarritakoaren arabera zehaztutakoari, 28- eta 29- artikuluetan aurreikusitako murrizketak eta 30- artikuluan aurreikusitako kenketak aplikatu ahal izango zaizkio, aplikagarriak direnean.

3- Aurreko bi paragrafoetan adierazitako moduan zehazten den prestazio ekonomikoaren zenbatekoak inoiz ere ez ditu honako hauek gaindituko:

a) Laguntzaile pertsonala –edo, kasua denean, laguntzaile pertsonalak– kontratatzearen benetako kostua, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan.

b) Kontratututako zerbitzu edo zentroaren benetako kostua, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan.

28- artikulua- Murrizketak, zenbait prestazio ekonomiko eta zerbitzu batera erabiltzeagatik

1- Baldin eta, foru dekretu honen 6.1 artikuluan ezarri den prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen arteko bateragarritasun araubidea dela medio, familia inguruneke zainketetarako eta zaintzaile ez profesionaleri laguntzeko prestazio ekonomikoa jasotzen bada eta aldi berean etxez etxeko laguntza zerbitzua erabiltzen bada, ehuneko 25 murriztuko da prestazio ekonomikoaren banakako zenbatekoa, aurreko artikuluan definitutakoa.

Murrizketa hori etxez etxeko laguntza zerbitzua hasten den egunetik aurrera aplikatuko da- Prestazio ekonomikoa eskatzeko unean eskatzailea jada etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaile bada, prestazio ekonomikoa jasotzen hasten den egunetik aurrera aplikatuko da murrizketa- Murrizketa horrek etxez etxeko laguntza zerbitzurako eskubideak dirauen bitartean iraungo du.

2- Baldin eta, foru dekretu honen 6.1 artikuluan ezarri den prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen arteko bateragarritasun araubidea dela medio, familia inguruneke zainketetarako

eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa edo laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa jasotzen bada eta aldi berean eguneko zentroko zerbitzua edo eguneko arreta zerbitzua –zentro okupazionala barne– erabiltzen bada, edo adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroa erabiltzen bada, honako portzentaje hauetan murriztuko da prestazio ekonomikoaren banakako zenbatekoa, aurreko artikuluan definitutakoa.

a) Arreta astelehenetik igandera: ehuneko 45

b) Arreta asteburuetan: ehuneko 15

c) Arreta lanegunetan (astelehenetik ostiralera):

– Arreta lanaldiaren 2 heren eta lanaldiaren ehuneko 100 bitartean: ehuneko 30

– Arreta lanaldiaren heren bat eta bi heren bitartean: ehuneko 22,5

– Lanaldiaren herena baino gutxiagoehuneko 15

Kasu bakoitzari dagokion murrizketa aplikatzekoa izango da eguneko zentro edo zerbitzua adinekoentzako gaueko zentro edo zerbitzua erabiltzen den lehenengo egunetik aurrera- Dena delako prestazio ekonomikoa eskatzen den unean pertsonak jada goian aipatutako zerbitzuetako baten bat erabiltzen badu, prestazio ekonomikoa jasotzen hasten den egunetik aurrera aplikatuko da murrizketa- Murrizketa horrek zerbitzurako eskubideak dirauen bitartean iraungo du.

3- Baldin eta, foru dekretu honen 6.1 artikuluan ezarri den prestazio ekonomikoaren eta zerbitzuen arteko bateragarritasun araubidea dela medio, familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa jasotzen bada eta harekin batera etxez etxeko laguntza zerbitzua eta eguneko zentroko zerbitzua edo eguneko arreta zerbitzua –zentro okupazionala barne– erabiltzen badira, edo harekin batera etxez etxeko laguntza zerbitzua eta adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroa erabiltzen badira, aurreko idatz zatietan, hurrenez hurren, aurreikusitako murrizketak aplikatuko dira- Betiere, prestazioaren banakako zenbatekoa, aurreko artikuluan definitutakoa, ezingo da ehuneko 65 baino gehiago murriztu, guztira.

4- Artikulu honetako 2- eta 3- idatz zatietan azaldutako kasuetan, prestazio ekonomikoarekin batera erabiltzen den eguneko zentro nahiz eguneko arreta zerbitzua edo gaueko zerbitzu nahiz zentroa atsedenerako modalitatekoa denean, atsedendaldiko egunetan bakarrik aplikatuko da murrizketa, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz aplikatuko du, hura aplikatzeko ebazpenik eman beharrik izan gabe.

29- artikulua- Murrizketak, zenbait prestazio ekonomiko batera erabiltzeagatik

1- Baldin eta familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa edo laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa bateragarri egiten bada, 5.1 artikuluan ezarritako moduan, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoarekin, atsedenerako modalitatean, adinekoentzako ostatu zerbitzua (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza edo egoitza zerbitzu nahiz zentroa –denak ere gizarte zerbitzuen foru saretik kanpokoak– erabili ahal izateko, orduan ez da inongo murrizketarik aplikatuko, baina eten egingo da familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa edo laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa- Prestazio hori etenda egongo da zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak, atsedenerako modalitatekoak, dirauen bitartean.

2- Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa edo laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa bateragarri egiten bada, 5.1 artikuluan ezarritako moduan, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoarekin, bai modalitate arruntan bai atsedenerako modalitatean, aurreko paragrafoan aipatu gabeko zerbitzuak erabili ahal izateko, orduan murriztu egingo da familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoaren edo laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa, 27- artikuluan ezarritako irizpideak erabiliz kalkulaturakoa- Hain

zuzen ere 28- artikuluan aurreikusitako murrizketak aplikatuko dira, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa atxikita daukan zerbitzu edo zentroa zer motatakoa den kontuan izanik- Horrelakoe-tan, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa atsedenerako zerbitzu bati lotuta dagoenean, atsedendaldiko egunei bakarrik aplikatuko zaie murrizketa, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakun-deak aplikatuko du ofizioz, hura aplikatzeko ebazpenik eman beharrik izan gabe.

30- artikulua- Kenketak

1- Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoetariko edozeinen onuraduna – artikulua honetako 2- idatz zatian aurreikusitako salbuespena salbu– gizarte babeserako beste araubide publiko batean izaera eta xede berak edo antzekoak dituen beste edozein prestazioren titularraren denean, prestazio horiei dagozkien zenbatekoak kenduko zaizkio 27- artikulua-ren aplika-zioaren ondorioz eta, hala behar denean, 28- eta/edo 29- artikuluetan aurreikusitako murrizketen aplikazioaren ondorioz ateratzen den prestazioaren zenbatekoari- Bereziki, honako prestazio hauei dagozkien zenbatekoak kenduko dira:

a) Baliaezintasun handiagatik osagarria, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko Berariazko Xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 139.4 artikuluan arautzen duena.

b) Gutxienez ehuneko 75eko minusbaliotasun gradua duen 18 urtetik gorako seme-alabaren bat euren kargura daukatenentzako esleipen ekonomikoaren osagarria, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko Berariazko Xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 182 bis.2.c) artikuluan aurreikusten duena.

c) Kotizazio gabeko baliaezintasun pentsioaren osagarria, beste pertsona baten beharra edukitzeagatik jasotzen dena, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren arloko Berariazko Xedapenei buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legearen bidez aldatuak, 145.6 artikuluan aurreikusten duena.

d) Hirugarren pertsona baten laguntzarenatik sorospena, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2.c) artikulua aurreikusten duena, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haiek Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu batera-tua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak mantentzen duena legegintzako errege dekretu hori indarrean jarri baino lehenagotik hura jasotzen duten eta de-kretu horren xedapen iragankor bakarrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat.

2- Artikulu honetan aurreikusitako kenketak ez dira aplikatuko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa ematen denean atsedenerako modalitatean, atsedenerako zerbitzuak erabili ahal izateko eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan, adinekoentzako gaueko zerbitzuan edo zentroan, adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan, edo egoitza zerbitzuan edo zentroan –denak ere gizarte zerbitzuen foru saretik kanpokoak– Horrelakoetan foru dekretuz zehazten diren zenbatekoak bakarrik hartuko dira kontuan, 26- artikuluan adierazi bezala.

IV- TITULUA- PRESTAZIO EKONOMIKOAK AITORTZEA, BERRIKUSTEA, ALDATZEA, ETETEA ETA AZKENTZEA

31- artikulua- Aplikatu beharreko prozedura

Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoari aplikatu beharreko prozedura honako xedapen hauen bidez arautuko da, bai prestazioak aitortzeko bai haiek berrikusteko, aldatzeko, eteteko eta azkentzeko:

a) Orokorki, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuan ezarritako prozeduren bidez.

b) Berariaz, aurreko letran aipatutako xedapenen osagarri gisa titulu honetan prozedurari buruz jasotako xedapenen bidez.

I- KAPITULUA- PRESTAZIO EKONOMIKOAK AITORTZEA

32- artikulua- Dokumentazio osagarria

Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoak eskuratu ahal izateko, mendekotasuna duen pertsonak, zuzenean edo bere legezko ordezkariaren nahiz egitatezko zaintzailearen bitartez, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 62- artikuluan adierazitako agiriak aurkeztuko ditu- Horiekin batera, foru dekretu honen I- eranskinetako inprimaketatik kasu bakoitzean behar direnak ere aurkeztuko ditu, eta berariazko agiri osagarri hauek erantsiko ditu:

a) Beharrezkoa denean, babes maila osagarria aplikatu ahal izateko, Arabako Lurralde Historikoan aurreko hiru urteetan jarraian erroldatuta egon dela frogatzeko udal ziurtagiria, foru dekretu honen 8.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik- Ziurtagiri hori aurkeztu beharko dute Arabako Lurralde Historikoko udalerrri guztietakoek, Gasteizen, Laudion edo Amurriion erroldatuta daudenen izan ezik, kasu horietan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zuzenean begiratu duela udal erroldetan, baldintza hori betetzen den ala ez ikusteko.

b) Familia inguruneke zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa denean:

– Prestazio hori jaso ahal izateko berariazko datu osagarriak, foru dekretu honen II- eranskinetako 18- inprimakiko eredu normalizatuan jasoak.

– Mendekotasuna duen pertsona zaintzeko konpromisoa, 11.h) artikuluan aipatutakoa, foru dekretu honen II- eranskinetako 19- inprimakiko eredu normalizatuan egina.

– Gainerako ahaideek zaintzaile nagusiaren izendapena onartzen dutela dioen adierazpena, 10.b) artikuluan aipatutakoa, foru dekretu honen II- eranskinetako 20- inprimakiko eredu normalizatuan egina.

c) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa denean:

– Prestazio hori jaso ahal izateko berariazko datu osagarriak, foru dekretu honen III- eranskinetako 22- inprimakiko eredu normalizatuan jasoak.

– Laguntzaile pertsonalarekin edo laguntzaile pertsonalekin sinatutako kontratua edo, horrelakorik ezean, aurrekontratua, edo laguntza pertsonaleko zerbitzua ematen duen erakundearekin sinatutako zerbitzu kontratua edo, horrelakorik ezean, aurrekontratua- Betiere, kontratuan adierazi beharko da zeintzuk eginkizun bete beharko diren laguntza pertsonalaren esparruan, 16.d) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, bai eta zer motatako lanaldia kontratatu den ere: lanaldi osoa edo lanaldi partziala; eta, azken kasu horretan, partzialtasun koefizientea jarriko da.

– Prestazioaren titularrak edo haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzaileak laguntzaile pertsonalari lan kontratua egiten dion kasuetan, langilea Gizarte Segurantzaren afiliatzeko eskubidea, edo afiliazioa onartzeko ebazpenaren kopia.

– Foru dekretu honen 16.g) artikuluan azaldutako kualifikazioa frogatzen duen titulazioa, edo, bosgarren xedapen iragankorreko 1- paragrafoan aurreikusitako kasuetan, behar den lanbide esperientziaren frogagiriak.

– Prestazio ekonomikoaren titularrak erakunde pribatu batekin kontratatzen badu laguntza pertsonalerako zerbitzua, erakunde horren legezko ordezkariak sinatutako zinpeko adierazpena-Bertan bermatuko da prestazio ekonomikoaren titularrari laguntzaile pertsonal gisa esleitutako pertsonak 16.g) artikuluan prestakuntzaren aldetik eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela, eta, ahal den neurrian, laguntzen prestazioa egonkorra izango dela.

d) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa denean, modalitate arruntekoa, gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko zerbitzu edo zentroak erabiltzekoa:

– Prestazio hori jaso ahal izateko berariazko datu osagarriak, foru dekretu honen IV- eranskineko 24- inprimakiko eredu normalizatuan jasoak.

– Kontratua edo, horrelakorik ezean, aurrekontratua, non jasoko baita prestazioari lotutako zentro edo zerbitzu pribatuak prestazioaren titularrarekin edo haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzailearekin hartutako konpromisoa, titularrari arreta ematekoa- Dokumentu horretan gutxienez datu hauek jaso beharko dira: zentroko egonaldia edo zerbitzuaren erabilera hasiko den eguna; titularrak ordaindu beharko duen hileko prezioa; eta kontrataturiko zerbitzuaren edukiaren azalpena- Kontratuan edo, kasua bada, aurrekontratuan kontratuzko harreman mugagabea aurreikusi beharko da, eta hasierako probaldi bat, foru dekretu honen 20.b) artikuluan ezarrita dagoen bezala.

– Beharrezkoa denean, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren titularra ez den beste pertsona fisiko edo juridiko bati ordaintzeko baimena, 35.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, foru dekretu honen IV- eranskineko 26- inprimakian dagoen eredu normalizatuan.

e) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa denean, atsedenerako modalitatekoa, atsedenerako zerbitzuak erabili ahal izateko eguneko zerbitzu edo zentroan, adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroan, adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan edo egoitza zerbitzu nahiz zentroan –kasu guztietan ere gizarte zerbitzuen foru saretik kanpokoak–:

– Prestazio hori jaso ahal izateko berariazko datu osagarriak, foru dekretu honen IV- eranskineko 25- inprimakiko eredu normalizatuan jasoak.

– Zenbat gau edo egun eskatzen diren, atsedenerako zerbitzuaren edo zentroaren izaeraren arabera.

– Beharrezkoa denean, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren titularra ez den beste pertsona fisiko edo juridiko bati ordaintzeko baimena, 35.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, foru dekretu honen IV- eranskineko 26- inprimakian dagoen eredu normalizatuan.

33- artikulua- Ebazpen proposamena eta ebazpena

1- Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailearen 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 68- eta 69- artikuluetan aurreikusitako edukiez gainera, foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoak esleitzeko ebazpen proposamenak eta ebazpenak berariazko eduki hauek bildu beharko dituzte:

a) Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionaleri laguntzeko prestazio ekonomikoaren kasuan:

– zaintzaile nagusiaren identitatea.

b) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan:

– laguntzaile pertsonalaren edo laguntzaile pertsonalen identitatea, edo zerbitzua kontratatu zaion erakundearena, kontratu motaren arabera;

– kontratatutako lanaldi mota: lanaldi osoa edo lanaldi partziala; eta, azken kasu horretan, partzialtasun koefizientea jarriko da.

– aurrekontrata aurkeztu den kasuetan, formalizatutako kontrata aurkeztea prestazioa ordaintzeko baldintza izango dela dioen oharra.

c) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa denean, modalitate arruntekoa, gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko zerbitzu eta zentroak erabili ahal izatekoa:

– prestazio ekonomikoari lotutako zerbitzu edo zentroaren identifikazioa;

– ohar hau: prestazioa azkendu egingo dela baldin eta, gizarte zerbitzuen foru sarearen barruko izaera bereko zerbitzu edo zentroren batean plaza hutsen bat dagoelarik, ez badago eskatzaile bat ere itxaroten prestazioari lotutako zerbitzu edo zentroaren izaerari dagokion Plazak Kudeatzeko Programako Plaza Hutsak Esleitzeko Zerrendan;

– zerbitzu edo zentroarekiko aurrekontrata aurkeztu den kasuetan, formalizatutako kontrata aurkeztea prestazioa ordaintzeko baldintza izango dela dioen oharra;

– ohar hau: ahalmen ekonomikoa aldatuz gero prestazio ekonomikoaren berrikuspena eskatu ahal izango dela, zenbatekoa aldatze aldera.

d) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa denean, atsedenerako modalitatekoa, atsedenerako zerbitzuak erabili ahal izateko eguneko zerbitzu edo zentroan, adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroan, adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan edo egoitza zerbitzu nahiz zentroan –kasu guztietan ere gizarte zerbitzuen foru saretik kanpokoak–:

– prestazio ekonomikoari lotutako zerbitzu edo zentro motaren identifikazioa;

– onartutako gauen edo egunen kopurua, prestazioari lotutako zentro edo zerbitzuaren izaeraren arabera;

– zein urtetarako onartu den.

2- Kasu guztietan, ebazpenean berariaz adieraziko da esleitutako prestazio ekonomikoaren iraupenerako baldintza izango dela hura emateko arrazoiek irautea, onarpenerako baldintzak betetzen jarraitzea, onarpenaren ondoriozko betebeharrak betetzea eta prestazioa azkentzeko kausarik ez gertatzea, foru dekretu honen 36- artikuluan eskubidearen iraupenari buruz ezarritakoarekin bat etorriz.

34- artikulua- Prestazio ekonomikoetarako eskubidearen sortzapena

1- Mendekotasun egoera aitortuz gero, aitorten hori egiten duen eta pertsonari prestazio ekonomiko zehatza esleitzen dion ebazpenaren datatik aurrera sortuko ditu ondorioak prestazio ekonomikoetarako eskubideak, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 69- artikuluan ebazpen hori arautzeko ezarritako epeetan; hori guztia bat dator Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, Aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez aldatuak, azken xedapenatariko lehenengoaren 3- idatz zatian ezarritakoarekin.

2- Aurrekoa gorabehera, eskubidea aitortzen eta prestazio ekonomiko zehatza esleitzen duen ebazpenaren data baino lehen sortu ahal izango ditu atzeraeraginezko ondorioak prestazio ekonomikoetarako eskubideak, honako kasu hauetan:

a) Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa edo zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa aitortzen eta esleitzen duen ebazpenaren jakinarazpena, eskatzaileari ezin egotzi zaizkion

arrazoiengatik, epez kanpo bideratzen denean, hots, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 69.2 artikuluan prozedura jarraituetarako ezarritako 6 hilabeteko epea igarotakoan edo artikuluko berean prozedura etenetarako ezarritako 2 hilabeteko epea igarotakoan- Epe horiek amaitzen diren egunaren hurrengo egunetik aurrera atzeraeraginezko ondorioak sortuko ditu ebazpen horrek, laguntzaile pertsonala kontratatzen bada edo zerbitzu nahiz zentro batean sartzen bada, dagokionaren arabera.

b) Mendekotasun egoera behin-behinean aitortzen den kasuetan, balorazio berria ez bada egiten behin-behineko aitortenaren baliozkotasun epea amaitu baino lehen eta inguruabar hori ezin bazaio eskatzaileari egotzi, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 13- artikuluko 5.b) paragrafoan ezarritako moduan- Kasu horietan, mendekotasunaren balorazio berriari dagokion ebazpenaren ondoren, hala dagokionean, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa edo familia inguruneke zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortzen duen eta dagokion zenbatekoa zehazten duen ebazpena eman eta jakinaraziko da- Mendekotasun graduan izandako aldaketen arabera izango da zenbateko hori, eta aurreko baliozkotasun epean jasotakoa baino txikiagoa, berdina edo handiagoa izango da- Aurreko aitortenaren baliozkotasun epea amaitu eta biharamunetik aurrera atzeraeraginezko ondorioak sortuko ditu ebazpen horrek, laguntzaile pertsonala kontratatzen bada edo zentro batean sartzen bada edo zainketak egokitzen badira, dagokionaren arabera.

3- Lehenengo idatz zatian aurreikusitakoa gorabehera, prestazio ekonomikoa aitortzen eta esleitzen duen ebazpena ematen den egunaren ondoren sortu ahal izango ditu ondorioak prestazio ekonomikoetarako eskubideak, honako kasu hauetan:

a) Mendekotasun egoeraren behin-behineko aitortenaren kasuetan, behin-behineko aitortenaren baliozkotasun epea amaitu aurretik egin bada balorazio berria- Horrelakoetan, mendekotasunaren balorazio berriari dagokion ebazpenaren ondoren, pertsonak jarraituko du zegoen prestazio ekonomikoa jasotzen harik eta behin-behineko aitortenaren baliozkotasun epea amaitzen den arte- Egun horretatik aurrera, balorazio berriak ondorioak sortuko ditu eta, hala behar denean, zerbitzuak eta/edo prestazio ekonomikoak esleitzeko beste ebazpen bat eman beharko da- Aldez aurretik banakako arreta programa berrikusi egingo da, hala badagokio.

b) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa aitortzen duen ebazpena prestazioari lotutako zerbitzu edo zentrori sartu aurretik ematen denean- Kasu horietan, prestazioari lotutako zerbitzu edo zentrori sartzeko data eraginkorretik aurrera sortuko ditu ondorioak ebazpenak.

35- artikulua-- Prestazio ekonomikoak ordaintzea

1- Mugaeguneratutako hilekoetan ordainduko dira prestazio ekonomikoak, urtean 12 hilekotan, hain zuzen- Salbuespena izango da zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa, atsedenerako modalitatekoa, atsedenerako zerbitzua jasotzeko eguneko zentroan edo eguneko arreta zentroan, adinekoentzako zerbitzu edo zentroan, adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan edo egoitza zerbitzu nahiz zentroan; ordainketari dagokionez, modalitate hori artikuluko honetako 2- idatz zatian ezarritakoari lotuta egongo da.

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan, ordainduko diren 12 hilekoen barruan sartuko da laguntzaile pertsonal gisa kontratatutako pertsonaren edo pertsonen opor hilabetea, artatutako pertsonaren –edo haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzailearen– eta laguntzaile pertsonalaren arteko lan kontratua dagoenean- Betiere, lanaldi osoko laguntzaile

pertsonala kontratatzen laguntzeko emango da prestazioaren gehieneko zenbatekoa- Kontratazioa lanaldi partzialekoa bada, prestazioaren zenbatekoa murriztu egingo da: modu proportzionalan kalkulatu da, kontraturiko partzialtasun koefizientearen arabera- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren zenbatekoak ez du inoiz gaindituko dekretu honen III- tituluan ezarritakoa aplikatuta pertsonari dagokion zenbatekoa, alde batera utzita zerbitzu horiek laguntzaile pertsonal batek edo gehiagok ematen dituzten, zein kontratu mota hautatzen den eta kontratu batean edo gehiagotan formalizatzen den- Prestazio hori ordaintzeko baldintza izango da Gizarte Segurantzako alta aurkeztea, eta, lehenago aurrekontratu baino aurkeztu ez den kasuetan, 32- artikuluko c) letran ezarritakoaren arabera, kontratua aurkeztea: prestazio ekonomikoaren onuradunaren –edo, kasua bada, haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzailearen– eta laguntzaile pertsonal gisa kontraturiko pertsonaren zein pertsonen arteko kontratua, edo prestazio ekonomikoaren onuradunaren –edo, kasua bada, haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzailearen– eta laguntza pertsonaleko zerbitzuak ematen dituen erakundearen artekoa.

Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa modalitate arruntekoa denean, gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko zerbitzu eta zentroak erabiltzekoa, hura ordaintzeko baldintza izango da erabiltzailearen –edo haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzailearen– eta zerbitzu edo zentroaren arteko kontratua aurkeztea, lehenago aurrekontratu baino aurkeztu ez den kasuetan, 32- artikuluko d) letran ezarritakoaren arabera.

2- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa atsedenerako modalitatekoa denean, atsedenerako zerbitzuak erabiltzekoa eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan, adinekoentzako gaueko zerbitzu edo zentroan, adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan edo egoitza zerbitzu nahiz zentroan –denak ere gizarte zerbitzuen foru saretik kanpokoak–, behin egonaldia amaitutakoan egingo da ordainketa, eta alde zuzenetik agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari:

a) jatorrizko faktura, zentroak edo zerbitzuak sinatuta eta zigilatuta, non zehaztuko baita zenbat egun edo gau –zerbitzuaren izaeraren arabera– egin diren zentroan eta zein egunetan sartu eta irten den (ez da inola ere ordainduko prestazioa emateko ebazpenean onartutakoa baino gau edo egun kopuru handiagorik);

b) faktura ordaindu dela frogatzen duen banku agiria.

Foru zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa Arabako Lurralde Historikotik kanpoko zentro edo zerbitzu bati lotuta dagoen kasuetan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ziurtagiria eskatuko dio zentroa kokatuta dagoen eremu geografikoan eskumena duen administrazioari, zentro edo zerbitzu hori zentro baimenduna edo homologatua dela egiaztatu ahal izateko.

Justifikatutako gauen edo egunen –zerbitzu motaren arabera– kopurua ebazpenean aitortutako kopurua baino txikiagoa bada, benetan egindako egonaldia ordainduko da, ebazpen berririk eman beharrik izan gabe.

3- Prestazio ekonomikoak ordaintzeko, banku transferentzia egingo da, eta horretarako kontua adierazi beharko da foru dekretu honen I- eranskineko 13- inprimakian, ordainketarako banku kontuaren identifikazio fitxan- Kontu horren titularra prestazio ekonomikoaren onuraduna izango da, hurrengo idatz zatian aurreikusitako kasuetan izan ezik.

4- Aurreko idatz zatian ezarritakoa gorabehera, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, bai modalitate arruntean zein atsedenerako modalitatean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak erabaki ahal izango du titularra ez den pertsona fisiko edo juridiko bati ordaintzea prestazioa, titularrak prestazioa bere xederako ez erabiltzeko arriskua badauka eta legezko ordezkari edo egitatezko zaintzailerik ez badauka; beste pertsona horrek frogatu beharko du prestazio ekonomikoari lotutako zerbitzu edo zentroaren ordezkari gisa diharduela, eta alde zuzenetik prestazioaren titularrak baimena eman beharko du, IV- eranskineko 26- inprimakian

dagoen eredu normalizatuan-Titularra ez den pertsona fisiko edo juridiko bati ordaintzen zaion kasu horietan, prestazioa hartzen duen pertsonak edo erakundeak idatziz konpromisoa hartu beharko du Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari jakinaraziko dizkiola heriotzagatik, zentro aldaketagatik edo beste edozein arrazoirengatik gertatzen diren baja edo aldaketa guztiak- Jakinarazpen horiek egiteko eredu normalizatua dago IV- eranskineko 26- inprimakian.

36- artikulua- Eskubidearen iraupena

Foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoen aitorpenak indarrean iraungo du:

- a) prestazioak emateko kontuan hartu ziren arrazoiek dirauten bitartean;
- b) prestazioak eskuratzeko eskatutako betekizunak betetzen diren bitartean;
- c) prestazioak ematearen ondoriozko betebeharrak betetzen diren bitartean;
- d) prestazioa azkentzeko foru dekretu honen 42- artikuluan araututa dauden arrazoiatariko bat ere gertatzen ez den bitartean.

II- KAPITULUA- PRESTAZIO EKONOMIKOAK BERRIKUSTEA, ALDATZEA, ETETEA ETA AZKENTZEA

37- artikulua- Aitortutako prestazioak berrikustea

1- Prestazio ekonomikoak ofizioz berrikusi ahal izango dira edonoiz.

2- Alderdi baten eskariz berrikusi ahal izango dira prestazio ekonomikoak, baldin eta:

- a) prestazioa emateko zio izan ziren eta prestazioan eragina izan dezaketen betekizunetan aldaketa gertatzen bada;
- b) prestazio ekonomikoaren zenbatekoan eragina izan dezakeen aldaketa gertatzen bada titularraren ahalmen ekonomikoan;
- c) titularraren beharizanen edo egoera pertsonalaren bilakaera ikusita komenigarritzat jotzen bada aldaketa egitea prestazio ekonomikoan eta/edo jasotzen den zerbitzuan.

3- Lehenengo eta bigarren idatz zatietan aipatutako berrikuspenetan, prestazioen titularrei – edo haien legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzaileei– eskatu ahal izango zaie beharrezkotzat jotzen diren agiriak aurkez ditzatela dagozkien betekizunak eta betebeharrak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko.

4- Prestazio ekonomikoen berrikuspenak berekin ekarri ahal izango du prestazioaren zenbatekoa aldatzea, prestazio ekonomikoa etetea edo azkentzea, kapitulu honetako hurrengo ataletan ezarritako eran.

1- atala- Prestazio ekonomikoen zenbatekoa aldatzea

38- artikulua- Prestazioaren zenbatekoa aldatzea

1- Prestazio ekonomikoen zenbatekoa aldatu ahal izango da baldin eta aurreko artikuluan araututako berrikuspenean egiaztatzen bada hauetakoren bat gertatu dela:

- a) titularraren ahalmen ekonomikoaren aldaketa, 27- artikuluan zehaztuta dagoen prestazioaren banakako zenbatekoan eragina duena;
- b) inguruabarren aldaketa, 28- eta 29- artikuluetan aurreikusitako murrizketak aplikatzea eragin lezakeena, edo dagoeneko aplikatzen ari diren murrizketetan eragina izan lezakeena;
- c) 30- artikuluan aurreikusitako kenketa aplikagarrien aldaketa;
- d) mendekotasun gradua aldatzea hura berrikustearen ondorioz edo mendekotasun egoeraren behin-behineko aitorpenaren ondoren mendekotasun graduaren balorazio berria egitearen ondorioz, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren

arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uz-tailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 13- artikuluan egoera horiek arautzen diren baldintzetan.

2- Aldaketaren arrazoia artikuluko 1- idatz zatiko d) letran aurreikusitakoa denean, zenbatekoaren aldaketaren ondorioak bat etorriko dira foru dekretu honen 34- artikuluan pres-tazio ekonomikoetarako eskubidearen sortzapenari buruz ezarritakoarekin- Lehenengo idatz zatiko gainerako kasuetan, aldaketak ondorioak sortuko ditu aldaketaren kausa gertatu zen egunetik aurrera.

2- atala- Prestazio ekonomikoetarako eskubidea etetea

39- artikulua- Eteteko arrazoiak

Prestazio ekonomikoetarako eskubidea honako arrazoi hauengatik etengo da:

a) Atsedenaldi bat hartzeko zerbitzua erabiltzeagatik adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan edo egoitza zerbitzu nahiz zentroan, bai gizarte zerbitzuen foru sa-reko zerbitzuak direnean, bai sare horretakoak ez diren zerbitzuak direnean (zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten bidez sartuko litzateke pertsona zentro horietan, atsedenerako modalitatean).

Desgaitasuna duten pertsonen eta buru gaixotasun kronikoa duten pertsonen kasuan, atsedenerako zerbitzua erabiltzen bada laguntzadun etxebizitzan edo egoitza zerbitzu nahiz zentroan, horrek ez du ekarriko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikorako eskubidea etetea eguneko zerbitzu edo zentroak –okupazionalak barne–, etxez etxeko laguntza zerbitzua eta/edo autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak erabiltzeko, betiere zerbitzu horiek benetan erabiltzen badira.

Adinekoen kasuan, atsedenerako zerbitzua erabiltzen bada ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), horrek ez du ekarriko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikorako eskubidea etetea autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak erabiltzeko, betiere ostatu zerbitzuak ez badu horien pareko zerbitzurik eskaintzen eta horiek benetan erabiltzen badira.

b) Atsedenaldi bat hartzeko zerbitzua erabiltzeagatik eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan –dela gizarte zerbitzuen foru sareko zerbitzuetan, dela sare horretatik kanpoko zerbitzuetan, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa dela medio, atsedenerako modalita-tean–; prestaziorako eskubidea eteteko arrazoi hori aplikatuko da soil-soilik zerbitzuari lotu-tako prestazio ekonomikoa autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuetarako denean, betiere eguneko zentroak edo eguneko arreta zerbitzuak horien pareko zerbitzuak eskaintzen baditu.

c) Onuradunak 45 egun baino gehiago jarraian egiteagatik ospitalean- Salbuespenez, honako kasu hauetan ospitalean egiten den lehenengo egunetik aurrera etengo da prestaziorako eskubi-dea: zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuetarako edo etxez etxeko laguntza zerbitzurako denean.

d) Berariaz, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan, prestazioaren titula-rrak lan kontratuaren edo zerbitzu kontratuaren bidez kontraturiko laguntzaile pertsonalaren aldi baterako ezintasunarengatik, betiere titularrak ez badu ordezkorik jartzen eta aldi baterako ezintasunak 15 egun baino gehiago irauten badu.

e) Zaintzaile ez profesionalaren aldaketa ez jakinarazteagatik, familia inguruneko zainketeta-rako eta zaintzaile ez profesionali laguntzeko prestazio ekonomikoaren kasuan, edo laguntzaile pertsonalaren aldaketa ez jakinarazteagatik, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan, edo zentroz nahiz zerbitzuz aldatzeko baimenik ez eskatzeagatik, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, hurrenez hurren foru dekretu honen 14., 17- eta 21- artiku-luetan ezarritako moduan.

f) Honako betebeharrak hauek berandu betetzeagatik, betiere atzerapena hilabetetik gorakoa ez bada, epearen azken egunetik aurrera zenbatuta:

– Prestazio ekonomikoa eman zenean ezarri zitzaion helbururako osorik erabili dela frogatzea.

– Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari prestazio ekonomikoak zer baldintzatan erabiltzen diren egiaztatzen uztea.

– Etxean esku hartze teknikoak egiten uztea, 10.h) artikuluan aipatutako baimena emanaz, familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionalen laguntzeko prestazio ekonomikoaren kasuan.

– Etxean sartzen uztea, 15.e) artikuluan aipatutako baimena emanaz, prestazioaren egokitasunerako baldintzei eusten zaiela egiaztatu ahal izan dadin, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan.

– Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak edo kasuan kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuak prestazio ekonomikoaren kudeaketarako eskatzen dituen informazioak ematea eta agiriak aurkeztea.

– Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan, zaintzaile profesionalen Gizarte Segurantzaren arloan ezarritako betebeharrarekin zerikusia duen edozein gorabehera Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari jakinaraztea, titularraren eta laguntzaile pertsonalaren arteko lan kontratua badago.

Baldin eta f) letra honetan aipatutako atzerapena hilabetetik gorakoa bada, betebeharra ez dela bete ulertuko da eta prestazio ekonomikoa azkendu egingo da foru dekretu honen 42.1.i) artikuluan aurreikusitako moduan.

40- artikulua- Etetearen ondorioak eta iraupena

Prestazio ekonomikorako eskubidea eteteak prestazioaren ordainketa etetea ekarriko du, eta honako egun hauetatik aurrera sortuko ditu ondorioak:

a) Atsedeen zerbitzu bat erabiltzeagatik eteten bada prestazioa, 39- artikuluko a) eta b) letratan adierazitako moduan, atsedeen zerbitzua erabiltzen hasten den egunetik aurrera- Horrelakoetan, atsedeen zerbitzuan egiten den egonaldiak adina iraungo du etenaldiak.

b) Ospitaleratzeagatik eteten bada prestazioa, 39- artikuluko c) letran adierazitako moduan:

– ospitaleratze egunetik aurrera, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa jasotzen bada autonomia sustatzeko zerbitzuak eta etxez etxeko zerbitzua erabili ahal izateko;

– 39.c) artikuluan aipatutako 45 eguneko epea amaitu eta biharamunetik aurrera, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa jasotzen bada aurreko leroaldean aipatu gabeko zerbitzuak erabili ahal izateko.

Etenaldiak ospitaleko egonaldiak adina iraungo du, baina inoiz ere ez 6 hilabete baino gehiago jarraian, etenaldi eraginkorra hasten den egunetik aurrera zenbatuta, izan ere 6 hilabete igarotakoan prestaziorako eskubidea azkendu egingo baita besterik gabe, 42.1.k) artikuluan aurreikusi bezala.

c) Laguntzaile pertsonalaren aldi baterako ezintasuna bada etenaldiaren arrazoia eta ordezkorik jartzen ez bada, 39.d) artikuluan adierazitako eran, aldi baterako ezintasun aldiko hamaseigarren egunetik aurrera- Horrelakoetan etenaldiak laguntzaile pertsonalaren aldi baterako ezintasuna amaitu arte iraungo du, baina inoiz ere 6 hilabete baino gehiago jarraian, etenaldi eraginkorra hasten den egunetik aurrera zenbatuta, izan ere 6 hilabete igarotakoan prestaziorako eskubidea azkendu egingo baita besterik gabe, 42.1.k) artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Prestazioa eteten duen ebazpenaren datatik aurrera, zaintzaile ez profesionalaren aldaketa jakinarazteko betebeharra ez betetzeagatik eteten bada prestazioa, familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionaleri laguntzeko prestazio ekonomikoaren kasuan, edo laguntzaile pertsonalaren aldaketa ez betetzeagatik, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan, edo zentroz nahiz zerbitzuz aldatzeko baimenik ez eskatzeagatik, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, 39.e) artikuluan ezarritako eran- Horrelakoetan etenaldiak hilabete iraungo du.

e) Prestazioa eteteko ebazpena ematen den egunetik aurrera, 39.f) artikuluan azaldutako betebeharren hilabete baino gutxiagoko atzerapena bada etetearen arrazoiak- Horrelakoetan etenaldiak hilabete iraungo du.

41- artikulua- Prestazioaren ordainketa badaezpada etetea

1- Alde batera utzita prestazioa azkentzeko prozedurari ekin zaion edo ez, hurrengo atalean aurreikusi bezala, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, ofizioz edo alderdiren batek eskaturik, prestazio ekonomikoaren ordainketa eten ahal izango du kautelazko neurri gisa, prestazio ekonomikoa aitortzeko edo mantentzeko betekizunen bat galtzea berekin dakarren egoeraren bat gertatu dela edo kasuan kasuko prestazio ekonomikoari lotutako betebeharren bat ez dela bete uste izateko zantzuak badaude.

2- Horrelakoetan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak prestazio ekonomikoa mantentzea, etetea edo prestaziorako eskubidea azkentzea ebatzi beharko du, kautelazko etenaldia erabakitzen duenetik hasita hiru hilabeteko epean- Epe hori beste hiru hilabetez luzatu ahal izango da auziaren konplexutasunak horrela eskatzen badu eta kasuan kasuko arloko zuzendariordeak teknikoaren txostenean arrazoiak azaltzen badira.

3- atala- Prestazio ekonomikoetarako eskubidea azkentzea

42- artikulua- Azkentzeko arrazoiak

1- Arau orokor gisa, foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoetarako eskubidea azkendu egingo da azkentzeko kausa hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Titularraren heriotza.

b) Foru dekretu honetan prestazioak jasotzeko ezarritako betekizunetariko edozein galtzea, orokorra nahiz berariazkoa.

c) Titularrak edo haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzaileak berariaz egindako ukoa, edo berariazkoa ez den ukoa, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuan, foru dekretu honetan eta garapenerako ematen diren xedapenetan aurreikusitako kasuetan.

d) Banakako arreta programan aldaketa egitea eta horren bidez erabakitzea aurretik aitortutako prestazio ekonomikoa jada ez dela egokia, edo, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, lotuta daukan zerbitzu mota jada ez dela egokia onuradunarentzat.

e) Azkenduko den prestazio ekonomikoarekin bateragarria ez den zerbitzu baterako edo prestazio ekonomiko baterako eskubidea aitortzea.

f) Prestazio ekonomikoaren epea, hura emateko ebazpenean ezarritakoa, amaitzea.

g) Aurreikusitako indarraldia amaitzea, behin-behinean emandako mendekotasun aitopenen kasuan, salbu eta prestazio ekonomikoaren zenbatekoa aldatzen den kasuetan, foru dekretu honen 38.1.d) artikuluan aurreikusten diren horietan.

h) Pertsona onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historiko batera edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora behin betiko lekualdatzea, foru dekretu honen bigarren

xedapen gehigarrian espedienteak lekualdatzeari buruz ezarritakoa betetzeari utzi gabe, eta lehenengo xedapen gehigarriaren 1.c) atalean aurreikusitako salbuespenezko egoera salbu.

i) Honako betebeharrak ez betetzea, edo bete behar diren epearen azken egunetik hasita hilabete baino gehiagoko atzerapenarekin betetzea:

– Emandako prestazio ekonomikoak zer baldintzatan erabiltzen diren ikuskatzen uztea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari.

– Prestazio ekonomikoa eman zenean ezarri zitzaion helbururako osorik erabili dela frogatzea.

– Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak edo kasuan kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuak prestazio ekonomikoaren kudeaketarako eskatzen dituen informazioak ematea eta agiriak aurkeztea.

j) Dokumentazio osagarrian beharrezko datuak edo informazioak ez jartzea edota datu edo informazio faltsuak jartzea.

k) Prestazioetarako eskubidea 6 hilabete baino gehiago jarraian etenda egotea, etenaldi eraginkorraren lehenengo egunetik aurrera zenbatuta.

2- Berariaz, familia inguruneko zainketetarako eta laguntzaile ez profesionalak zaintzeko prestazio ekonomikorako eskubidea azkenduko da honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Zaintzailearen heriotza, salbu eta mendekotasuna duen pertsonak beste zaintzaile ez profesional bat hartzen badu heriotza horren egunetik 15 egun natural igaro baino lehenago eta horrela jakinarazten badio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari.

b) Mendekotasuna duen pertsona zaintzeko konpromisoaren barruan onartutako betebeharrak ez betetzea.

c) Etxean esku hartze teknikorik egiten ez uztea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, Gasteizen bizi direnek, edo erreferentziako oinarrizko gizarte zerbitzuari, Arabako Lurralde Historikoko beste udalerrri batzuetan bizi direnek, edo betebeharrak hori hilabetetik gorako atzerapenarekin betetzea, betetzeko epea amaitzen den egunetik aurrera zenbatuta.

d) Sei hilabeteko epea igarotzea Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 2., 14- eta 32- artikuluetan azaldutako beharizan egoerak aitortzeko eskatu den egunetik, eta epe horretan familia harrera formalizatu ez izana, artikuluko horietako 4.c), 4.c) eta 4.d) puntuetan, hurrenez hurren, aurreikusitako kasuetan, edozein izanda ere formalizatu ez izanaren arrazoia; hori guztia bat dator aipatutako foru dekretuaren 75.1.h) artikuluekin.

3- Beren-beregi, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikorako eskubidea honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean azkenduko da:

a) Titularraren eta laguntzaile pertsonalaren arteko edo titularraren eta laguntza pertsonaleko zerbitzua ematen duen erakunde pribatuaren arteko kontratuzko harremana azkentzea, edozein arrazoi dela medio.

b) Laguntzaile pertsonal gisa kontratatutako pertsonak edo horrela kontratatutako pertsonetarikoen baten batek 16.g) artikuluan aipatzen den lanbide kualifikazioa ez lortzea foru dekretu hau indarrean jartzen den egunetik hasita 5 urteko epean, bosgarren xedapen gehigarriaren 2- idatz zatian aipatutako pertsonen kasuan.

c) Etxean esku hartze teknikorik egiten ez uztea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, Gasteizen bizi direnek, edo erreferentziako oinarrizko gizarte zerbitzuari, Arabako Lurralde

Historikoko beste udalerrri batzuetan bizi direnek, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa egokia izateko baldintzei eusten zaiela egiaztatu ahal izateko, edo betebeharrak hori hilabetetik gorako atzerapenarekin betetzea, betetzeko epea amaitzen den egunetik aurrera zenbatuta.

d) Titularraren eta laguntzaile pertsonalaren arteko lan kontratua dagoen kasuetan, zaintzaile profesionalen Gizarte Segurantzaren arloan ezarritako betebeharrekin zerikusia duten gorabeherak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari ez jakinaraztea, edo betebeharrak hori hilabetetik gorako atzerapenarekin betetzea, betetzeko epea amaitzen den egunetik aurrera zenbatuta.

4- Berariaz, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikorako eskubidea, modalitate arruntekoa, gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko zerbitzu edo zentroak erabiltzekoa, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean azkenduko da:

a) Prestazioaren onuradunaren eta prestazioari lotutako zerbitzu edo zentroaren arteko kontratuzko harremana azkentzea.

b) Prestazioaren titularrak zentroan ez egotea, justifikatu gabeko arrazoiengatik, urtean 45 egunetan baino gehiagotan.

c) Gizarte zerbitzuen foru sareko plaza huts bat ez onartzea, nahiz eta eskatzaileak ez egon itxaroten, prestazio ekonomikoari lotuta dagoen zerbitzuaren izaerari dagokion Plazak Kudeatzeko Programako Plaza Hutsak Esleitzeko Zerrendan.

5- Berariaz, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikorako eskubidea, atsedenean modalitatekoa, atsedenerako zerbitzuak erabiltzekoa eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan, adinekoentzako gaueko zerbitzuan, adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan edo egoitza zerbitzu nahiz zentroan –kasu guztietan ere foru saretik kanpo–, honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean azkenduko da:

a) Prestazio hori eman zeneko urte naturala amaitzea.

b) Zerbitzuari lotutako modalitate arrunteko prestazio ekonomikoaren bitartez eskuratutako adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan edo egoitza zerbitzu nahiz zentroan sartzea, modalitate arruntean, gizarte zerbitzuen foru sarean nahiz foru saretik kanpo.

6- Aurreko idatz zatietan azaldutako kasuetan, onuraduna hiltzen denean izan ezik, ez baldin bada kautelazko neurri gisa prestazioa eten, onuradunaren eskubidea azkendu aurretik, onuradunari entzuteko izapidea beteko da, 15 eguneko entzunaldia emanez, eta arrazoiak eta alegazioetarako epea adieraziko zaizkio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatuak, 84- artikuluan ezartzen duen eran.

43- artikulua- Azkentzearen ondorioak

1- Eskubidea azkentzeak berekin ekarriko du prestazioa ordaintzeari uztea.

2- Prestazio ekonomikoaren azkentzeak ondorioak sortuko ditu azkentzeko arrazoiak gertatzen den egunetik aurrera- Aurrekoa ez da aplikatuko, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren titularrak hiltzen denean, lan kontratua badago mendekotasuna duen pertsonaren edo haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzailearen eta laguntzaile pertsonalaren edo laguntzaile pertsonalaren artean; horrelakoetan azkentzeak hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

3- Aurreko artikuluen 1.j) puntuan azaldutako arrazoiengatik prestazioa azkentzen denean, titularrak ezingo du foru dekretu honetan arautzen diren prestazio ekonomikoetatik bakar bat ere eskatu urtebeteko epean, prestazioa azkentzen den egunetik zenbatzen hasita.

V- TITULUA- BIDEGABEKI JASOTAKO PRESTAZIOAK ITZULTZEA**44- artikulua- Bidegabeki jasotako prestazioak itzultzea**

1- Prestazioa aldatu, eten edo azkentzeko prozeduraren baten ondorioz edo beste edozein inguruabarrengatik egiaztatzen bada foru dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoetariko edozein bidegabeki jaso dela edo behar baino zenbateko handiagoa jaso dela, titularrak hura itzuli egin beharko du, betiere itzulketa eskatzeko akzioa preskribatu ez bada 46- artikuluan aurreikusitako eran.

2- Prestazioa bidegabeki jaso dela edo behar baino zenbateko handiagoa jaso dela erabakitzen bada, hori erabakitzen duen ebazpenean bertan prestazioa itzuli beharra ezarriko zaio onuradunari.

45- artikulua- Bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko prozedura

1- Aurreko artikuluan azaldutako kasuetan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak abian jarriko du bidegabeko prestazioak edo behar baino handiagoak itzularazteko prozedura.

2- Behin prozedura hasita, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak prozeduraren hasiera, arrazoiak, balizko ondorio ekonomikoak eta ebazpena emateko eta jakinarazteko epea jakinaraziko dizkio titularrari- Interesdunek, jakinarazpen egunetik hasita hilabeteko epean, egokitzen dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte.

3- Alegazioak jaso ondoren, edo ezarritako epea alegaziorik jarri gabe amaitu ondoren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, hilabeteko epean, ebazpena emango du, bidegabeko prestaziorik edo behar baino prestazio handiagorik jaso den ala ez adierazteko- Ebazpen arrazoiak izango da.

4- Bidegabeko prestazioak edo behar baino prestazio handiagoak jaso direla irizten bazaio, aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenak itzuli beharreko zenbatekoa adieraziko du- Ebazpen horretan, halaber, interesdunak itzuli beharreko itzultzeko duen epea ezarriko da, eta itzuli beharreko hori zenbat hiletan eta hileroko zenbat itzuli beharko duen, kasua bada, ordainketa zatikatzeko akordio baten esparruan- Horretarako, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, ofizioz, titularrak jasotzen ari den prestazio ekonomikoen hileroko deskontuari edo konpentsazioari ekin ahal izango dio.

46- artikulua- Itzularazteko prozedura iraungitzea eta preskripzioa

1- Aurreko artikuluko 3- idatz zatian azaldutako itzultze prozedura ebazteko epea amaitzen denean, berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da, eta iraungitze hori deklaritzen duen ebazpenean jarduketak artxibatzeke aginduko da- Interesdunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik prozedura gelditzen bada, ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa eten egingo da.

2- Bidegabeki jasotako diru kopuruak itzuli beharra, Administrazioak ez baditu diru kopuru horiek erreklamitzen edo ez bada ordainketa zatikatzeko akordiorik egiten aurreko artikuluan azaldutako eran, bost urteren buruan preskribatuko da, ezertan eragotzi gabe ez-betetzea egiaztatuz gero eman beharreko ebazpena, Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauarekin bat etorriz.

VI- TITULUA- PRESTAZIO EKONOMIKOEI ETA LAGUNTZAREN KALITATEARI JARRAIPENA EGITEA**47- artikulua- Prestazio ekonomikoen jarraipena**

1- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak prestazio ekonomikoen jarraipena egingo du, egiaztatu ahal izateko ezarri zitzaizen xederako erabiltzen ari direla eta titularrak, prestazio ekonomiko horien bitartez, euren beharrezane behar adina eta behar bezala erantzuteko laguntza egokia jasotzen ari direla.

2- Aurreko idatz zatian ezarritakoaren haritik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak prestazio ekonomikoaren titularrari –edo haren legezko ordezkari nahiz egitatezko zaintzaileari– eskatu ahal izango dio modu sinesgarrian froga dezala zein xede eman zaion prestazio ekonomikoari.

3- Arau orokor gisa, gutxienez jarraipen bat egingo da urtean- Halaber, jarraipena sarriago egitea erabaki ahal izango da, mendekotasuna duten pertsonen edo zaintzaileen inguruabar bereziak kontuan hartuta, eta bereziki foru dekretu honen 12- artikuluko 3- eta 4- idatz zatietan adierazitako kasuetan.

4- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizios berrikusi ahal izango du pertsona bakoitzaren ahalmen ekonomikoa, kontuan hartu behar dena prestazio ekonomikoaren banakako zenbatekoa kalkulatzeko, 27- artikuluan zehazten den bezala.

48- artikulua- Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionali laguntzeko prestazio ekonomikoaren jarraipena

1- Familia inguruneko zainketetarako eta zaintzaile ez profesionali laguntzeko prestazio ekonomikoaren kasuan hauek izango dira jarraipenaren helburuak:

a) Egiatzatzea prestazio ekonomikoa jasotzeko baldintza guztiei eusten zaiela (artapena, bizikidetzeta, etxebizitzaren egokitasuna eta gainerako baldintzak).

b) Zaintzen kalitatea baloratzea, eta etorkizunean gerta litekeen zainketa faltari aurrea hartzea.

c) Egiatzatzea mendekotasun duen pertsonaren laguntza beharrak betetzeko erabiltzen dela prestazio ekonomikoa.

d) Egiatzatzea prestazioaren titularrak Arabako Lurralde Historikoan duela benetako bizilekua urtean 8 hilabeteetan, gutxienez, babes maila osagarriko prestazioa denean, foru dekretu honen 8.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

2- Zaintzen kalitatea baloratzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Zaintzaileak behar adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izaten jarraitzea, mendekotasuna duen pertsona behar bezala zaindu eta artatzeko.

b) Mendekotasuna duen pertsona zaintzen ematen den denbora.

c) Zaintzarako jasotzen diren laguntzetan izandako aldaketak.

d) Mendekotasuna duen pertsonarekiko bizikidetzeta egoeraren aldaketa.

e) Zaintzaileak prestakuntza ekintzetan parte hartzea.

f) Zaintzailearen atsedenaldiak.

3- Jarraipenarekin batera informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskainiko zaizkie mendekotasuna duen pertsonari eta zaintzaileari.

49- artikulua- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren jarraipena

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren kasuan, hau izango da jarraipenaren helburua:

a) Egiatzatzea prestazio ekonomikoaren titularrak –ez badu legezko ordezkariaren edo egitatezko zaintzailearen bitartez jarduten– gai izaten jarraitzen duela erabakiak hartzeko eta bere laguntzaile pertsonalaren edo laguntzaile pertsonalen jarduna kontratuan hitzartutako eginkizun eta jarraibideekin bat datorren ala ez zehazteko.

b) Egiatzatzea laguntzen motak, intentsitateak eta kalitateak eta laguntza horien egonkortasun eta jarraitutasunak prestazio ekonomikoaren titularraren beharrianetarako egokiak izaten jarraitzen dutela.

c) Egiaztatzea kontratuari eusten zaiola eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ari direla- Horretarako, egindako gastuen frogagiriak erkatuko dira eta behar diren egiaztape-nak egingo dira Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin elkarlanean, 24.a) artikuluan adierazi bezala.

d) Egiaztatzea prestazioaren titularrak Arabako Lurralde Historikoan duela benetako bizilekua urtean 8 hilabeteen, gutxienez, babes maila osagarriko prestazioa denean, foru dekretu honen 8.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

50- artikulua- Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren jarraipena

Zerbitzuari lotutako modalitate arrunteko prestazio ekonomikoa jasotzen denean gizarte zerbitzuen foru saretik kanpoko zerbitzu edo zentroak erabili ahal izateko, honako hau izango da jarraipenaren helburua:

a) Egiaztatzea prestazio ekonomikoaren titularrak prestazio ekonomikoari lotutako zerbitzu edo zentroaren erabiltzaile izaten jarraitzen duela.

b) Egiaztatzea laguntzen mota, intentsitatea eta kalitatea egokiak direla prestazio ekonomi-koaren titularraren beharrezanetarako.

c) Egiaztatzea, gizarte zerbitzuetako zerbitzu eta zentroi baimena emateko arduraren duen foru zerbitzuari kontsulta eginda, prestazio ekonomikoari lotutako zerbitzu edo zentroak jarraitzen duela baimen hori emateko eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko baten esparruan akreditatzeko eskatu zitzaizkion baldintzak betetzen.

d) Egiaztatzea prestazioaren titularrak Arabako Lurralde Historikoan duela benetako bizilekua urtean 8 hilabeteen, gutxienez, babes maila osagarriko prestazioa denean, foru dekretu honen 8.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa- Salbuespenezko egoerak.

1- Salbuespen gisa, inguruabarrek hala eskatzen dutenean eta txosten teknikoek hala baloratzen eta justifikatzen dutenean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak zilegi izango du, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 44- artikuluan araututako salbuespenezko egoerak aplikatzeaz gainera, honako salbuespen hauek aplikatzea:

a) Betetzat ematea etxe berean bizitzearen betekizuna, 10.e) artikuluan ezarritakoa, familia inguruneko zainketetarako eta laguntzaile ez profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoa jaso ahal izateko, baldin eta mendekotasuna duen pertsonaren bizilekuaren eta zaintzailearen bizilekuaren arteko hurbiltasun fisikoak bide ematen badu zaintza konpromisoa behar bezala betetzeko.

b) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, foru dekretu honen 26., 27., 28., 29- eta 30- artikuluetan (aplikagarriak diren neurrian, kasuaren arabera) xedatutakoaren arabera zehaztutako prestazioez gain diru kopuru osagarria ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen iritziz ikuspegi sozioekonomikotik aparteko babesgabezia duten pertsonen, eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan sartu ahal izan daitezen, edo adinekoentzako gaueko zerbitzu nahiz zentroan, edo adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), edo desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitzan, edo egoitza zerbitzu nahiz zentroan, modalitate arruntean zein atsedenerako modalitatean.

Mendekotasuna duen pertsonak ikuspegi sozioekonomikotik aparteko babesgabezia duela pentsatuko da honako inguruabar hauek batera gertatzen direnean:

– Pertsonak beharrezkoa badu eguneko zentroan edo eguneko arreta zerbitzuan sartzea, edo adinekoentzako gaueko zerbitzu nahiz zentroan, edo adinekoentzako ostatu zerbitzuan (etxebizitza komunitarioa), edo desgaitasuna edo buru gaixotasuna duten pertsonentzako laguntzadun etxebizitza, edo egoitza zerbitzu nahiz zentroan –atsedenaldi baterako nahiz egonaldi luzeago baterako–, horixe delako beraren beharizanetarako eta egoera pertsonalerako irtenbide egoki bakarra, artapenaren ikuspuntutik- Aurrekoari dagokionez, mendekotasuna duen pertsona berarentzako aukera egoki bakartzat jotzen den zentro edo zerbitzuan sartzeko justifikazioa kasu bakoitzaren izaeraren arabera eskumena daukan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko arloko zuzendariordetza teknikoak egingo du- Horretarako txostena emango du eta txosten hori administrazio espedienteari erantsiko zaio.

– Pertsonaren ahalmen ekonomikoa, 26., 27., 28., 29- eta 30- artikuluetan (aplikagarriak diren neurrian, kasuaren arabera) xedatutakoaren arabera zehaztutako prestazioaren zenbatekoari batuta, nahikoa ez bada dena delako zentro edo zerbitzuaren prezioa ordaintzeko, edo, ahalmen ekonomiko nahikoa izanik ere, pertsonak ez badu prezio hori ordaintzeko behar besteko likideziarik, horrelako egoerak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoei buruzko foru araudian zehazten diren baldintzetan- Aurrekoa dela eta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen azterketa ekonomikoa egiteko eskumena duen arloko zuzendariordetza teknikoak baloratuko du ahalmen ekonomikoaren edo likideziaren urritasuna- Horretarako txostena emango du eta txosten hori administrazio espedienteari erantsiko zaio.

Aparteko babesgabetasun egoera aintzat hartzeari dagokionez, aurrean azaldutako irizpideez gainera, kontuan hartu ahal izango da mendekotasuna duen pertsonaren ohiko bizilekuan bi-ziogokitasun edo ekipamendu baldintza ezegokiak edota oztopo arkitektonikoak egotea.

Kasu guztietan ere, b) letra honetan araututako diru kopuru osagarria ematen denean ordainketa geroratuko da eta zorra aitortuko da, eta aplikagarriak izango dira Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoei buruzko foru araudian haiei buruz dauden aurreikuspenak.

Horrelakoetan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bermeak eskatu ahal izango ditu, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoei buruzko foru araudian berme horiek zehazten eta antolatzen diren baldintzetan.

c) Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa aitortzea Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historiko batean edo autonomia erkidego mugakide batean kokatuta dauden zentroak erabiltzeko, betiere zentro horiek funtzionamendurako baimena badute lurralde historiko edo erkidego horretan- Salbuespenari buruzko ebazpenean zehaztuko da egonaldiaren iraupena.

2- Salbuespen espedienteak onartzeko aplikatu beharreko prozedura Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 44- artikuluan ezarritakoa izango da.

Bigarrena- Espedientea lekualdatzea.

Dekretu honetan araututako prestazio ekonomikoen titularren espedienteak lekualdatzeari dagokionez, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren eza-rritakoa beteko da- Lekualdaketa eskatzeko, foru dekretu honen I- eranskinetako 16- inprimakia bete eta aurkeztuko da.

Hirugarrena- Administrazio errekursoak eta aurkaratze judiziala.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendaritza-kudeatzaileak ematen dituen ebazpenen aurka administrazio edo jurisdikzio errekurtoa jarri ahal izango da, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren 88- eta 89- artikuluetan ezarritako eran.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa- Prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidearen eraginkortasun progresiboa.

Arabako Lurralde Historikoan, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidearen eraginkortasun progresiboa bat etorriko da Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoarekin.

Bigarrena- Foru dekretu hau aplikagarria izatea hura indarrean jarri aurretik Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoak jasotzen zituztenentzat, araudi berriak ere prestazio horietarako eskubidea ematen badie.

Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz, eta prestazio ekonomikoa jasotzen hasi den unearan arabera hainbat araudi desberdin aplikatu behar ez izateko, foru dekretu hau aplikagarria izango dute, hura indarrean jarritakoan Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako prestazio ekonomikoak eskuratzen dituzten pertsonak ez ezik, baita hura indarrean jarri aurretik sistema horretako prestazio ekonomikoak eskuratu dituztenek ere, baldin eta araudi berriak ere prestazio horietarako eskubidea ematen badie- Azken kasu horretan, araudi berria aplikatuta sor litezkeen desabantailak mugatze aldera, aplikazio horrek ezingo du ekarri prestazio ekonomikoen zenbatekoaren ehuneko 10etik gorako murrizketarik, honako inguruabar hauetakoren bat gertatu ezean:

- a) Mendekotasun gradua aldatzea.
- b) Zerbitzu edo prestazio berri bat eskuratzea.

Inguruabar horietakoren bat gertatzen denean, araudi berriaren aurreikuspen guztiak aplikatu beharko dira.

Hirugarrena- Foru dekretu hau indarrean jarri aurretik Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunaren Arretarako Sistematik jaso izan dituzten prestazio ekonomikoak araudi berriaren arabera jaso ezin dituzten pertsonak, edo bateragarriak izan dituzten prestazio ekonomikoak araudi berriaren arabera bateraezinak dituzten pertsonak.

1- Foru dekretu hau indarrean jarri aurretik jaso izan dituzten prestazio ekonomikoak araudi berriaren arabera jaso ezin dituzten pertsonak, edo bateragarriak izan dituzten prestazio ekonomikoak araudi berriaren arabera bateraezinak dituztenek, lehengo prestazio ekonomiko horiek jasotzen jarraitu ahal izango dute, Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat.

2- Horrelakoetan, behinola eskuratutako prestazio ekonomikoetarako eskubideari eutsi arren, araudi berria bete beharko dute, foru dekretu honen bigarren xedapen iragankorrean ezarritako moduan eta baldintzetan.

Laugarrena- Mendekotasun mailaren aipamenak.

Aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uz-tailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuak mendekotasun mailak kendu baino lehenago baloratuta dauden pertsonen dagokionez, foru dekretu honetan mendekotasun graduari buruz egiten diren aipamenak mendekotasun graduaren eta mailaren aipamentzat hartu behar dira, haien mendekotasun egoera berrikusten ez den bitartean; eta berrikusten bada, balorazio berriaren gradua baino ez da adieraziko.

Bosgarrena- Foru dekretu hau indarrean jartzen den egunean laguntza pertsonaleko zerbitzuetan ari diren edo arituak diren zainzaile profesionalen kualifikazioa, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren esparruan.

1- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren esparruan, foru dekretu hau indarrean jartzen den egunean norbait, profesional gisa –dela etxez etxeko laguntza zerbitzuan, dela etxe zerbitzuan–, mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza pertsonaleko zerbitzuetan ari bada edo aritua bada, eta Gizarte Segurantzako altaren bitartez horrela egiaztatzen bada, pertsona horrek Arabako Lurralde Historikoan laguntzaile pertsonal gisa jarduteko 16.g) artikuluan eskatzen den lanbide kualifikazioa baduela ulertuko da, baldin eta 45 urtetik gorakoa bada eta foru dekretu hau indarrean jarri aurreko 10 urteen barruan gutxienez 5 urteko lanbide esperientzia metatu duela frogatzen bada.

2- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren esparruan, foru dekretu hau indarrean jartzen den egunean norbait, profesional gisa, mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza pertsonaleko zerbitzuetan ari bada –eta Gizarte Segurantzako altaren bitartez horrela egiaztatzen bada–, baina 16.g) artikuluan aipatutako kualifikazioak ez baditu eta aurreko idatz zatian azaldutako egoeretan ere ez badago, ulertuko da pertsona horrek laguntzaile pertsonal gisa jarduteko eskatzen den lanbide kualifikazioa baduela, behin-behinean, 5 urterako bakarrik.

3- Artikulu honetako 1- eta 2- idatz zatietan aipatutako pertsonen prest egon beharko dute administrazio publikoek antolatzen dituzten prestakuntza ekintzetan parte hartzeko, eta proposatzen zaizkien prestakuntza ekintzak egingo dituzte, betiere mendekotasuna duen pertsona zainzarekin bateragarriak badira- Halaber, kontuan hartuko dituzte erreferentziako gizarte zerbitzuak ematen dituen arau, irizpide eta gomendioak.

Seigarrena- Foru dekretu hau indarrean jarri baino lehenago hasitako kontratuzko harremana egokitzea, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoaren esparruan.

1- Foru dekretu hau indarrean jartzen den egunean jada norbait kontratatuta daukatenean mendekotasuna duen pertsonaren bati laguntza pertsonaleko zerbitzuak emateko, kontratu hori foru dekretu honen 16.d) artikuluan ezarritako betekizunekin bat ez badator, aldatu egin beharko dute betekizun horietara egokitzeko.

2- Horrelako kasuetan, lehendik dagoen kontratua aurrekontratutzat hartuko da foru dekretu honen 32.c) artikuluan ezarritakoari dagokionez, eta prestazioa ordaintzeko baldintza izango da kontratu aldatua aurkeztea, 35.1 artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik gelditu dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo apalgoko xedapenak, eta bereziki honako foru dekretu hauek:

a) 11/2008 Foru Dekretua, otsailaren 12ko Diputatuen Kontseiluarena- Horren bidez, Arabako Lurralde Historikoan Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzako abenduaren 14ko 39/2006 Legeak xedatutako prestazio ekonomikoa arautzea onartzen da.

b) 24/2008 Foru Dekretua, apirilaren 8ko Diputatuen Kontseiluarena- Horren bidez, Arabako Lurralde Historikoan Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezarritako zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari buruzko araudia onartu da.

c) 30/2008 Foru Dekretua, apirilaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena- Horren bidez, publikoak ez diren egoitza eta etxebizitza komunitarioetan mendekotasun egoeran dauden pertsonak aldi batean sartzeko dirulaguntzei buruzko araudia onartzen da.

d) 40/2010 Foru Dekretua, abuztuaren 3ko Diputatuen Kontseiluarena- Horren bidez, onartzen da familia ingurunean zaintzeko dirulaguntzak arautzen dituen araudia, Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legea garatuz.

e) 20/2011 Foru Dekretua, martxoaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena- Horren bidez, onartu egiten da mendetasun egoeran (1- gradua -mendetasun arina-, 2- maila) dauden pertsonak familia barruan zaintzeko prestazio ekonomikoa arautzen duen araudia, abenduaren 14ko Legea, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzkoa, garatzeko- Martxoaren 13ko Diputatuen Kontseiluaren 18/2012 Foru Dekretuaren bidez aldatuta dago.

f) Foru dekretu honetan arautzen diren prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazteari buruz, honako foru dekretu hauek indarrean jarri aurretik indarrean egon diren arauzko xedapen guztiak:

– 22/2013 Foru Dekretua, ekainaren 25eko Diputatuen Kontseiluarena, laguntza pertsonalagatik, zerbitzuari lotuta eta senideak zaintzeagatik jaso beharreko dirulaguntzen zenbatekoak aldatu eta berriak ezartzen dituen; otsailaren 12ko 11/2008, apirilaren 8ko 24/2008 eta abuztuaren 3ko 40/2010 foru dekretuen bidez onartu ziren zenbateko horiek, eta urriaren 26ko 63/2011 eta azaroaren 20ko 67/2012 foru dekretuen bidez eguneratu.

– 4/2014 Foru Dekretua, otsailaren 11ko Diputatuen Kontseiluarena, apirilaren 8ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutako Arabako zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoen zenbatekoa onartzen duena, eta aldatu egiten duena uztailaren 23ko 24/2013 Foru Dekretua, mendekotasun eta ezintasun egoeran daudenek Araban gizarte zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko prozedura onartzen duena, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren kasuan, ezertan eragotzi gabe, 4/2014 Foru Dekretu honi dagokionez, uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarrean ezarritakoa; foru dekretu horrek arautzen ditu mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa- Ordezko araubidea.

1- Foru dekretu honetan berriaz arautzen ez diren gai guztietan aplikagarriak izango dira Mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura eta horrelako kasuetan Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituen uztailaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua, hura garatzeko ematen diren xedapenak, eta, halaber, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoei buruzko foru araudia.

2- Lehenengo idatz zatian aipatutako arauak berriaz aurreikusten ez dituzten gai guztietan, ordezko arau gisa aplikagarriak izango dira Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak

zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta horiek garatzeko xedapenak, bai eta horiekin bat datozen eta aplikatu behar diren gainerako lege xedapenak ere.

3- Oro har, berriazko arauak buruz egiten diren aipamenak, Estatukoak, autonomia erkidegokoak edo foralak izanda ere, une bakoitzean arlo horiekin lotuta indarrean dauden araudien aipamenak izango dira.

Bigarrena- Araudiaren garapena.

Gizarte Zerbitzuen Saileko buruari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko, be-tearazteko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena- Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau 2014ko urriaren 1ean jarriko da indarrean, laguntza pertsonalerako pres-tazio ekonomikoari dagozkion manuak izan ezik, horiek 2014ko azaroaren 1ean jarriko baitira indarrean.

Gasteiz, 2014ko abuztuaren 1a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRÉS GUERRA

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua

MARTA ALAÑA ALONSO